


azaroa ■ 2020

Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrereri buruzko inkestaren analisia

Iraide Fernández Aragón, Irune Ruiz Ciarreta, Julia Shershneva, Taide Arteta Esnal



CIP. Biblioteca Universitaria

Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko inkestaren analisisa [Recurso electrónico] / Iraide Fernández Aragón... [et al.]. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2020. – 1 recurso en línea : PDF (84 p.)

En la cub.: Ikuspegi, Eusko Jaurlaritza, Berditasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, y Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-297-0.

1. Discriminación - País Vasco. 2. Discriminación - Opinión pública. I. Fernández Aragón, Iraide, coaut. II. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)316.647.82(460.15)

Argitaraldi elektronikoa

Urtea eta lekua: 2020, Bilbo

Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Diseinua eta maketazioa: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Dokumentazioa: Antonio Gómez, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

Azaleko argazkia: John W. Iwanski, used under CC BY-NC 2.0 / Cropped and desaturated from original

ISBN: 978-84-1319-297-0



AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| 1. Sarrera | 5 |
| 2. Fitxa teknikoa | 9 |
| 3. Hautemandako diskriminazioa | 11 |
| 3.1. Gizarte anitzarekiko jarrera | 11 |
| 3.2. Hautemandako diskriminazioa: esparruak | 14 |
| 3.3. Diskriminazioak eta tratu-desberdintasunak ustez gehien eragiten dieten pertsonen ezaugarriak | 20 |
| 4. Aitortutako diskriminazioa | 27 |
| 4.1. Zuzeneko diskriminazio aitortua | 27 |
| 4.2. Zeharkako diskriminazio aitortua | 38 |
| 5. Jarrerak diskriminazioaren aurrean | 41 |
| 5.1. Bizikidetza eta sareak | 41 |
| 5.2. Sinesmenak eta dibertsitatearekiko iritzia | 46 |
| 5.3. Banako tolerantzia eta kolektiboa | 48 |
| 6. Salaketak eta jarduketak | 51 |
| 6.1. Salaketak eta erreklamazio formalak | 51 |
| 6.2. Eskubideak eta erakundeak ezagutzea | 55 |
| 6.3. Erakundeen balorazioa | 57 |
| 7. Ondorioak | 59 |

| | |
|---|-----------|
| 8. Glosarioa | 65 |
| 9. Glosarioaren bibliografia | 71 |
| Eranskina: galdetegia | 75 |

1

Sarrera

Txosten honek Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) diskriminazioaren fenomeno konplexuaz egindako azterlanaren ingurukoak biltzen ditu; izan ere, eskubide-estatusa duen gai giltzarria bada ere, oso gutxitan lantzen da ikerketa sozialean. Aukera-berdintasuna, eta, bereziki, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa da demokraziaren funtsezko elementua eta bizikidetzarako oinarria. Alabaina, gure sistema ekonomikoak desparekotasun handiak sorrarazten ditu pertsonen artean zein gizarteko kolektiboen artean, eta, beraz, ezinbestekoa da erakundeek esku hartzea eta errealitate horren diagnostia egitea.

Horrenbestez, gure helburua zera da: **EAEko biztanleek aniztasunari buruz zer pertzepzio eta jarrera dituzten jakitea (hainbat esparrutan)**, bai eta EAEn diskriminazioa zenbatekoa den jakitea ere, kontuan hartuta pertsonen arteko diskriminaziozko jardunbideak. Horretarako, jarrerak, aurreiritziak, jardunbideak eta ideologia hiru dimentsio hauetan aztertu ditugu:

- Diskriminazio instituzionala
- Egiturazko diskriminazioa
- Pertsonen arteko diskriminazioa

Hala ere, emaitzak aztertzen hasi aurretik, ezinbestekoa da definitzea eta argitzea ikerlan honen funtsezko kontzeptua: diskriminazioa. Oinarrizko eskubide eta askatasunetan galera dakarten bereizkeria, bazterketa edo eragozpena da diskriminazioa, horren arrazoia izanik, besteak beste, ezaugarri fisikoak, jatorri etnikoa, orientazio sexuala eta/edo genero-identitatea eta erlijioa. Diskriminazioa zuzenekoa edo zeharkakoa izan daiteke. Zuzenekoa da pertsona bati, haren ezaugarriak direla-eta (etnia, erlijioa, desgaitasunen bat, adina edo orientazio sexuala) beste norbaiti baino tratu okerragoa ematen zaionean antzeko egoera batean edo egoera konparagarri batean; eta zeharkakoa, berriz,

itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek desabantaila berezi bat eragiten dionean pertsona bati beste batzuen aldean, haren arraza- edo etnia-jatorriagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo orientazio sexualagatik (Eraberean, 2018).

Definizio hori abiapuntu hartuta eta zenbait azterlan euskarri gisa baliatuta (María Ángeles Cea D`Ancona eta Miguel S. Vallés, Lorenzo Cachón, Miguel Laparra autoreek eta ALTER taldeak egindakoa, Nafarroako Foru Komunitatean NASTAT institutuak egindakoa, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) egindakoa eta Europako Batzordeak egindako Eurobarometroa), tresna metodologiko bat diseinatu dugu, EAEn diskriminazioaren inguruan dauden pertzepzioak eta jarrerak kuantifikatzeko, bai eta Euskadi estatuan zein nazioartean kokatzeko ere. 1.200 inkesta egin ditugu, eta horiek galdetegian bildutako errealitateen azterlan xehea egiteko aukera ere eman digute.

Edukiari dagokionez, txostenean, lehenbizi, **hautemandako diskriminazioa** deskribatu dugu. Hau da, EAeko gizarteak sexua, arraza, jatorria, erlijioa, iritzi politikoak, desgaitasuna, adina edo orientazio sexuala dela-eta hainbat egoeratan edo testuingurutan hautemandako tratu bidegabea. Gero, eta ikerketa honen helburu nagusia ez den arren, **aitortutako diskriminazioa** jaso dugu, edo beste modu batera esanda, norberaren azalean jasandako diskriminaziozko egoerak edo gertaerak. Hirugarrenik, fenomenoak hobeto ulertze aldera nahitaezko elementu osagarria den aldetik, **EAeko gizarteak diskriminazioarekiko**, aniztasunarekiko eta talde edo kolektibo jakin batzuekiko **zer jarrera dituen deskribatu dugu**. Eta azkenik, diskriminazioa dela-eta instituzioetan egindako **salaketa eta jarduera** zenbaitekin zerikusia duten datuak jaso ditugu. Atal horiek guztiak osatzeko, txosten hau irakurtzeko baliagarriak diren dokumentu batzuk gehitu ditugu, hala nola azterlanaren fitxa teknikoa, glosarioa eta galdetegia.

Txosten honek izaera deskribatzailea du. Azterlan konplexuagoak edo aldagai anitzekoak egin aurretik, ezinbestekoa da inkestaren bidez aztertutako gai guztien deskripzio sistematikoa egitea. Horrenbestez, galdetutako aldagai guztiak azaldu ditugu, bai eta horiek beste aldagai interesgarri batzuekin gurutzatuta lortutakoak ere, hau da, aztertu ondoren estatistikoki alde esanguratsuak adierazten dituzten aldagaiak. Ikuspegi interseksionala ez bada ere, aldagai biko analisisian aldagai batzuen garrantzia eta interakzioa egiaztatu ahal izan dugu. Hauek dira aldagaiok: sexua/generoa, ikasketa-maila, adina, soldataren zenbatekoa, orientazio sexuala/desira eta jatorria. Alderdi horri dagokionez, ikerlan hau genero-ikuspegia kontuan hartuta garatu eta aztertu da. Ikuspegi hori kontuan hartzeak berekin ekarri du aldagai guztiak sexuaren/generoaren arabera aurkezteak (esanguratsuak izan edo ez izan), bai eta inkesta egiteko erabiltzen diren zenbait irizpide “klasiko” aldatzea ere. Abiapuntu gisa, sexuaren edo generoaren aldagaian erantzuteko hiru aukera eman ditugu (emakumezkoa, gizonezkoa eta ez-bitarra), baina inork ez du hirugarren aukera hautatu. Bestalde, generoa kategoria konplexua eta bizitzaren joanean alda

daitekeen kategoria dela adierazten saiatu gara, eta aldagai soziodemografikoen artean transexuala, transgeneroa, *queer* eta intersexuala aukerak eman ditugu erantzuteko, bai eta orientazio sexuala edo desira ere. Atal soziodemografikoa kontuan hartzeaz gain, hamabi aldiz galdetu dugu espezifikoki emakumea izateagatiko diskriminazioari edo tratu desberdinari buruz, hainbat esparru eta egoeratan. Tratu desberdin horrekin lotutako beste galdera batzuk ere egin ditugu. Hori horrela, ikerlan honetan genero-ikuspegia hobeto inplementatu daitekeela jakitun izanik, egileen eta taldearen ustez, lehenbiziko urratsa izan daiteke, edo hala izatea nahi genuke, aurrerantzean ikerlan inklusiboagoak egite aldera ereduak sortzeko.

2

Fitxa teknikoa

EAEEn diskriminazioa aztertzeko, eta ikerlanaren helburuekin bat etorrira, metodologia kuantitatiboa erabiltzea aukeratu dugu. Zehazki, 1.200 inkesta egin dira, etxez etxe eta aurrez aurre, EAEko hiru lurralde historikoetan. Hauek dira laginaren ezaugarri teknikoak:

- 1.200 inkesta.
- Etezez etxe inkesta pertsonala 18 urtetik gorakoei.
- Laginketa geruzatua (esleipen sinplea) kuotekin, habitat-tamainaren, jatorriaren, adinaren eta sexuaren arabera.
- Ausazko ibilbideen sistema; 34 laginketa-puntu.
- Lurralde historikoaren araberrako haztapena.
- Konfiantza-maila: % 95; $p=q$, eta errorea: $\pm 2,8$
- Denbora-epea:
 - Hasiera: 2020ko otsailaren 26a
 - Amaiera: 2020ko uztailaren 8a
 - COVID-19 gaitza dela eta, landa-lana eten egin zen konfinamenduak iraun zuen hilabeteetan, hots, apirila eta ekaina bitartean.

3


Hautemandako diskriminazioa

Atal honetan EAEko biztanleek diskriminazioaz duten pertzepzioari buruz lortutako emaitza nagusiak aztertuko ditugu. Hau da, EAEko gizarteak herritarren tratu eta aukera desberdinaren inguruan hautematen edo sumatzen duenari buruzko interpretazioak, iritziak eta adierazpenak azalduko ditugu. Lehenbizi, diskriminazioa batez ere zer esparrutan hautematen den azalduko dugu, eta, gero, esparruz esparru zehaztuko ditugu zer ezaugarri edo alderdi nagusik eragiten duten diskriminazioa handiagoa izatea.

Gizarte anitzarekiko jarrera

Oro har, EAEko herritarrak gizarte anitz batean, hots, jatorri, kultura eta erlijio ezberdineko pertsonak dituen gizarte batean bizitzearen alde agertu dira; hala adierazi du herritarren % 65,6k (1. grafikoa). Eta 10etik ia 3k nahiago du jatorri, kultura eta erlijio berdineko pertsonak dituen gizarte batean bizi. % 5,5ek ez daki edo ez du erantzun.

1. grafikoa. Bizitzeko aukeratutako gizarte-mota (%)



Iturria: 1. G. "Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?"

1. taulan ikus daitekeenez, gizonezkoak zein emakumezkoak agertu dira gizarte anitz batean bizitzearen alde. Bi kasuetan, 10 pertsonatik 6k baino gehiagok hala adierazi du.

1. taula. Bizitzeko nahiko luketen gizarte-mota, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--|---------|----------|--------|
| Jatorri, kultura eta erlijio ezberdineko pertsonak dituen gizarte batean | 65,6 | 64,7 | 66,5 |
| Jatorri, kultura eta erlijio berdineko pertsonak dituen gizarte batean | 28,9 | 29,9 | 27,8 |
| Ed | 4,7 | 4,5 | 4,9 |
| Ee | 0,8 | 0,8 | 0,8 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 1. G. "Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?".

Galdera bera eginda, erantzunetan alde nabariak daude adinaren arabera (2. taula). Batez ere 65 urtetik gorako pertsonak esan dute, gazteagoek baino gehiagok, gizarte homogeenago batean nahiko luketela bizi (% 47,5). Eta 18-29 urte bitartekoen kolektiboa da, berriz, gainerako adin-taldekoetatik gehien nabarmendu dena, adin-tarte horretako gazte askok adierazi baitu jatorri, kultura eta erlijio ezberdineko pertsonak dituen gizarte batean bizi nahiko luketela (% 77,8).

2. taula. Bizitzeko nahiko luketen gizarte-mota, adinaren arabera (%)

| | 18-29 urte | 30-44 urte | 45-64 urte | 65 urtetik gora |
|--|------------|------------|------------|-----------------|
| Jatorri, kultura eta erlijio ezberdineko pertsonak dituen gizarte batean | 77,8 | 73,7 | 68,6 | 48,1 |
| Jatorri, kultura eta erlijio berdineko pertsonak dituen gizarte batean | 15,5 | 20,5 | 25,7 | 47,5 |
| Ed | 4,8 | 5,2 | 5,2 | 3,6 |
| Ee | 2,0 | 0,6 | 0,5 | 0,8 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 170 | 278 | 432 | 320 |

Iturria: 1. G. "Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?".

Lurralde historikoaren arabera, aldeak bereziki handiak dira hiru lurraldeen artean, bizitzeko nahiko luketen gizarte-motari dagokionez (3. taula). Gipuzkoako biztanle gehiagok adierazi du kultura eta jatorri ezberdineko pertsonak bizi diren gizarte heterogeneoa nahiago dutela (% 73,3), Arabako biztanleek baino (% 69,1) eta Bizkaikoek baino (% 59,8).

3. taula. Bizitzeko nahiko luketen gizarte-mota, lurralde historikoaren arabera (%)

| | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Guztira |
|--|-------|----------|---------|---------|
| Jatorri, kultura eta erlijio ezberdineko pertsonak dituen gizarte batean | 69,1 | 73,3 | 59,8 | 65,6 |
| Jatorri, kultura eta erlijio berdineko pertsonak dituen gizarte batean | 21,3 | 22,6 | 34,8 | 28,8 |
| Ed | 7,3 | 3,3 | 4,9 | 4,8 |
| Ee | 2,2 | 0,8 | 0,5 | 0,8 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 178 | 390 | 632 | 1.200 |

Iturria: 1. G. "Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?"

Ikasketa-mailaren arabera ere aldeak handi samarrak dira galdera honetan (4. taula). Ikasketa-maila handia duten pertsonak (goi-mailakoak) gainerako taldeetatik nabarmentzen dira: pertsona horien % 75ek adierazi du nahiago duela jatorri, kultura eta adin ezberdineko pertsonak dituen gizarte batean bizi. Aitzitik, ikasketarik ez duen edo lehen mailako ikasketak dituen pertsona gehiagok adierazi du, gainerakoen aldean, gizarte homogeneoago batean nahiko luketela bizi (% 43,7).

4. taula. Bizitzeko nahiko luketen gizarte-mota, ikasketa-mailaren arabera (%)


| | Ikasketarik gabe / Lehen mailakoak | Bigarren mailakoak / Oinarrizkoak | LH / Bigarren mailakoak | Goi-mailakoak |
|--|------------------------------------|-----------------------------------|-------------------------|---------------|
| Jatorri, kultura eta erlijio ezberdineko pertsonak dituen gizarte batean | 51,7 | 64,3 | 70,2 | 75,0 |
| Jatorri, kultura eta erlijio berdineko pertsonak dituen gizarte batean | 43,7 | 27,6 | 24,8 | 19,5 |
| Ed | 3,9 | 7,7 | 4,2 | 4,5 |
| Ee | 0,7 | 0,5 | 0,8 | 1,0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 329 | 177 | 367 | 324 |

Iturria: 1. G. "Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?"

Hautemandako diskriminazioa: esparruak

Atal honetan EAEko gizarteak aukera-berdintasuna eguneroko bizitzako bost esparrutan nola hautematen duen aztertuko dugu. Hauek dira bost esparru horiek: etxebizitza eskuratzeko aukerak, enplegua lortzeko aukera, administrazioaren aurreko berdintasuna eta legearen aurreko berdintasuna.

2. grafikoa. Hautemandako diskriminazioa: esparruak (%)



Iturria: 3. G., 5. G., 9. G. eta 11. G. "Zure ustez, Euskadin pertsona guztiak berdinean tratatzen dira, edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera [...] eskuratzeko edo aplikatzeko?"

Oro har, 2. grafikoa adierazten duenez, tratuan eta aukeran desberdintasuna nabariago hautematen da berdintasuna baino galdetutako bost esparruetatik lautan. EAEko herritarrek pertsonenganako diskriminazio-egoera gehiago hautematen dituzte, alde handiarekin, etxebizitza alokatzeko orduan; hala adierazi du herritarren % 82,2k. Lan-eremuan hautemandako desberdintasuna ere nabarmenezko modukoa da, bai lanpostu baterako hautatuak izateko orduan (% 78,1), bai erantzukizuneko postu baterako hautatzeko orduan (% 77,6). Bestalde, herritarren % 60k uste du legeak eragin dezakeela aukera-desberdintasuna. Eta azkenik, herritarren % 30,5ek soilik uste du zerbitzu publikoak jasotzeko aukera desberdinak dituztela zenbait pertsonak, haien ezaugarriengatik edo gizarte-kolektibo jakin batekoa izateagatik.

Etxebizitza alokatzeko aukera

Herritar gehienek etxebizitza eskuratzeko aukeran hauteman dituzte diskriminazioak agerikoak. Emakumezkoek zein gizonezkoek sumatzen dute aukera-desberdintasuna dagoela etxebizitza bat alokatzeko orduan. Horren inguruan aldeak oso txikiak dira.

5. taula. Etxebizitzaren alorrean hautemandako diskriminazioa, sexuaren/ generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|---|---------|----------|--------|
| Pertsona guztiek aukera berdinak dituzte etxebizitza bat alokatzeko orduan | 13,4 | 13,2 | 13,6 |
| Pertsona guztiek ez dituzte aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan | 82,2 | 81,5 | 82,9 |
| Ed | 2,9 | 3,3 | 2,4 |
| Ee | 1,5 | 1,9 | 1,0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 7. G. "Uste duzu Euskadin pertsona guztiek dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan?"

6. taulan ikusten denez, jatorri atzerritarreko herritarren artean alde nabariak daude diskriminazioaren pertzepzioan, etxebizitza eskuratzeko aukerari dagokionez. Hain zuzen ere, Errumaniako pertsonen oso bestelako pertzepzioa dute, gainerako jatorrietako pertsonen dutenaren aldean; izan ere, ehuneko handi batek adierazi du "Pertsona guztiek aukera berdinak dituzte etxebizitza bat alokatzeko orduan" (% 37,5).

6. taula. Etxebizitzaren alorrean hautemandako diskriminazioa, jatorriaren arabera (%)

| | Espainia | Latinoamerika | Errumania | Afrika | Magreb | Asia | Beste batzuk |
|---|----------|---------------|-----------|--------|--------|------|--------------|
| Pertsona guztiek aukera berdinak dituzte etxebizitza bat alokatzeko orduan | 13,0 | 14,8 | 37,5 | 0 | 6,3 | 25,1 | 24,6 |
| Pertsona guztiek ez dituzte aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan | 82,6 | 79,7 | 62,5 | 100,0 | 82,1 | 74,9 | 75,4 |
| Ed | 3,0 | 3,2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ee | 1,4 | 2,3 | 0 | 0 | 11,6 | 0 | 0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.088 | 60 | 13 | 9 | 13 | 7 | 10 |

Iturria: 7. G. "Uste duzu Euskadin pertsona guztiek dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak etxebizitza bat alokatzeko orduan?"

Lan-esparrua: lanpostu bat eskuratzeko aukera

Lan-esparrua da aukera-desberdintasunak nabariaren sumatzen dituzten beste esparruetako bat, eta emakume gehiagok sumatzen dute diskriminazioa gizonezkoek baino, pertsona bat lanpostu baterako hautatua izateko orduan; zehazki, emakumeen % 79,8k eta gizonezkoen % 76,2k.

7. taula. Lan-esparruan hautemandako diskriminazioa, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--|---------|----------|--------|
| Pertsona guztiek aukera berdinak dituzte lanpostu baterako hautatuak izateko orduan | 19,3 | 17,0 | 21,9 |
| Pertsona guztiek ez dituzte aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan | 78,1 | 79,8 | 76,2 |
| Ed | 2,1 | 2,5 | 1,6 |
| Ee | 0,4 | 0,7 | 0 |
| Ed/Ee | 0,1 | 0 | 0,3 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 9. G. "Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiek dituztela aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?"

Lan-esparrua: erantzukizuneko postua eskuratzeko aukera

Lan-esparruan baita ere, baina, bereziki, erantzukizuneko postua eskuratzeko aukerari dagokionez, emakume gehiagok sumatzen dute aukera-desberdintasuna, gizonezkoen kopuruaren aldean (8. taula). Hamar emakumetik ia zortzik adierazi du pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko, eta iritzi hori dute gizonezkoen % 75,5ek.

8. taula. Erantzukizuneko postuak eskuratzeko orduan hautemandako diskriminazioa, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|---|---------|----------|--------|
| Pertsona guztiek aukera berdinak dituzte erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan | 17,5 | 15,0 | 20,3 |
| Pertsona guztiek ez dituzte aukera berdinak erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan | 77,6 | 79,6 | 75,5 |
| Ed | 3,3 | 3,6 | 3,0 |
| Ee | 1,5 | 1,8 | 1,2 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 11 .G. "Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiek aukera berdinak dituztela erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak erantzukizuneko lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?"

Galdera honetan ere, 9. taulan ikusten denez, adinaren arabera ez dira neurri berean sumatzen aukera-desberdintasunak, erantzukizuneko lanpostu bat eskuratzeko orduan. Adinez nagusienak diren pertsonen pertzepzioa, 65 urtetik gorakoena, oso bestelakoa da gainerako adin-talde gazteagoko pertsonen dutenaren aldean. Diskriminaziozko tratua pertzepzioari dagokionez, esan daiteke zenbat eta gazteagoa izan orduan eta jende gehiagok duela tratu- eta aukera-diskriminazioaren pertzepzioa.

Enpleguarekin lotutako gaietan, hezkuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ugariagoa diskriminazioaren pertzepzioa. 10. taulan ikus daiteke alde handia dagoela ikasketa-maila txikia dutenen eta gainerakoen artean. Hau da, baikorragoak dira (ehunekotan) ikasketa-maila txikia dutenak, aukera-berdintasunari eta erantzukizuneko postu bat eskuratzeari dagokionez.

9. taula. Erantzukizuneko postuak eskuratzeko orduan hautemandako diskriminazioa, adinaren arabera (%)

| | 18-29 urte | 30-44 urte | 45-64 urte | 65 urtetik gora |
|---|------------|------------|------------|-----------------|
| Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan | 13,2 | 15,1 | 17,3 | 22,3 |
| Pertsona guztiak ez dituzte aukera berdinak erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan | 80,9 | 80,5 | 78,1 | 72,8 |
| Ed | 5,0 | 3,6 | 2,1 | 3,9 |
| Ee | 0,9 | 0,9 | 2,6 | 0,9 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 170 | 278 | 432 | 320 |

Iturria: 11. G. "Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiak aukera berdinak dituztela erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiak ez dituztela aukera berdinak erantzukizuneko lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?"

10. taula. Erantzukizuneko postuak eskuratzeko orduan hautemandako diskriminazioa, ikasketa-mailaren arabera (%)

| | Ikasketarik gabe / Lehen mailakoak | Bigarren mailakoak / Oinarrizkoak | LH / Bigarren mailakoak | Goi-mailakoak |
|---|------------------------------------|-----------------------------------|-------------------------|---------------|
| Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan | 22,9 | 14,9 | 15,1 | 15,7 |
| Pertsona guztiak ez dituzte aukera berdinak erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan | 72,8 | 79,8 | 79,8 | 79,6 |
| Ed | 2,6 | 4,4 | 3,2 | 3,5 |
| Ee | 1,7 | 0,9 | 1,9 | 1,2 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 329 | 177 | 367 | 324 |

Iturria: 11. G. "Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiak aukera berdinak dituztela erantzukizuneko postu baterako hautatuak izateko orduan, edo uste duzu pertsona guztiak ez dituztela aukera berdinak erantzukizuneko lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?"

Justizia: legeen aplikazioa

Legeen aplikazioa da aztertutako beste esparruetako bat, eta datuek erakusten dute, oro har, hamar lagunetik seik uste duela, emakumezkoa izan zein gizonezkoa izan, desberdintasunak egiten direla pertsonen arabera. (11. taula).

11. taula. Legeak aplikatzeko orduan hautemandako diskriminazioa, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--|---------|----------|--------|
| Pertsona guztiei tratu berdina ematen zaie | 35,0 | 33,9 | 36,0 |
| Desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera | 61,0 | 61,9 | 60,1 |
| Ed | 3,8 | 4,1 | 3,6 |
| Ee | 0,1 | 0,1 | 0,2 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 2. G. "Legeak aplikatzeko orduan, zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?"

Legeen aplikazioari dagokionez, eta "erlijio-mota" (erlijiozaletasuna) aldagaia kontuan hartuta (12. taula), "agnostikoa edo ateo" direla adierazi dutenek sumatu dute batez ere tratu-desberdintasuna legearen aurrean. Pertsona horien % 68,5ek uste du legeak aplikatzean pertsonen arabera desberdintasunak egiten direla.

12. taula. Legeak aplikatzeko orduan hautemandako diskriminazioa, erlijioaren arabera (%)

| | Katolikoa | Agnostikoa edo ateo | Beste erlijio bat |
|--|-----------|---------------------|-------------------|
| Pertsona guztiei tratu berdina ematen zaie | 37,8 | 26,9 | 58,2 |
| Desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera | 58,7 | 68,5 | 39,5 |
| Ed | 3,3 | 4,5 | 2,2 |
| Ee | 0,2 | 0,1 | 0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| Kop. | 738 | 394 | 56 |

Iturria: 2. G. "Legeak aplikatzeko orduan, zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?"

Inkesta bete duten pertsonen orientazio sexualaren arabera aztertuta legearen aurreko tratuari buruzko erantzunak (13. taula), heterosexuak ez diren pertsona gehiagok sumatzen dute, alde handiarekin, diskriminazioa. Proporzioan heterosexualek baino gehiago hautematen dute diskriminazioa eta tratu desberdina justiziaren aurrean.

13. taula. Legeak aplikatzeko orduan hautemandako diskriminazioa, orientazio sexualaren arabera (%)

| | Heterosexuala | LGB |
|--|---------------|------|
| Pertsona guztiei tratu berdina ematen zaie | 35,9 | 16,3 |
| Desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera | 60,4 | 74,4 |
| Ed | 3,5 | 9,3 |
| Ee | 0,2 | 0,0 |
| Guztira | 100 | 100 |
| K | 1.130 | 43 |

Iturria: 2. G. "Legeak aplikatzeko orduan, zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?"

Zerbitzu publikoak jasotzeko aukera

Eta azkenik, zerbitzu publikoak jasotzeko (osasuna, hezkuntza...) aukeran EAeko biztanleek berdintasunaren inguruan duten pertzepzioa aztertu dugu. Oro har, hamarretik ia zazpi uste du aukera-berdintasuna dagoela zerbitzu publikoak jasotzeko orduan. Aukera-desberdintasun gutxien sumatzen duten esparrua da (14. taula). Baina, nolana ere, ehunekoak sexuaren/generoaren arabera aztertuta, emakumezkoak pixka bat pesimistagoak dira, eta adierazi dute aukera-desberdintasuna nabariagoa dela instituzioen aurrean.

14. taula. Zerbitzu publikoak jasotzeko orduan hautemandako diskriminazioa, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--|---------|----------|--------|
| Pertsona guztiek aukera berdinak dituzte zerbitzu publikoak jasotzeko | 68,1 | 66,6 | 69,6 |
| Pertsona guztiek ez dituzte aukera berdinak zerbitzu publikoak jasotzeko | 30,5 | 31,8 | 29,2 |
| Ed | 1,3 | 1,6 | 0,9 |
| Ee | 0,1 | 0 | 0,3 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |


Iturria: 5. G. "Uste duzu Euskadin pertsona guztiek dituztela aukera berdinak zerbitzu publikoak jasotzeko, adibidez hezkuntza eta osasuna, edo uste duzu pertsona guztiek ez dituztela aukera berdinak zerbitzu horiek jasotzeko?"

Diskriminazioak eta tratu-desberdintasunak ustez gehien eragiten dieten pertsonen ezaugarriak

Orokorra

Diskriminazioa sumatzen den esparruak aztertzeaz gain, herritarren ustez diskriminazio handiagoa eragin dezaketen ezaugarriak ere aztertu ditugu. Hortaz, 3. grafikoan jaso ditugu ustez aukera berdinak ez dituzten edo modu desberdinean tratatzen diren pertsonekin lotutako ezaugarri nagusiak. Eragin handiena izan dezakeen ezaugarriari dagokionez, EAEko biztanleen % 48,8k uste du etnia- edo arraza-jatorri desberdinekoa izatea diskriminazio-arrazoi oso ohikoa edo nahiko ohikoa dela. Horren ildo beretik, % 40,7k adierazi du nazionalitatea dela. Bestalde, % 41en ustez, gaixotasun mentala edukitzea ere diskriminazio-faktore bat da. Nabarmentzekoak dira, halaber, kaltegarritzat hartu dituzten ezaugarri hauek: baliabide ekonomiko gutxi izatea, desgaitasunen bat izatea eta adina. Beste aldean, hots, diskriminaziozko jarrerak gutxien eragiten dituzten ezaugarriak erlijioa edo sinesmen erlijiosoak eta orientazio sexuala direlako ustea dute herritarrek.


3. grafikoa. Hautemandako diskriminazioaren ezaugarriak. Orokorra (%)



Iturria: 13. G., (1-15). "Esaten da pertsona batek (edo pertsona talde batek) diskriminazioa jasan duela, baldin eta beste baten aldean modu okerragoan tratatu badute, bere ezaugarri pertsonalen ondorioz. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa da diskriminazioa edo tratu okerragoa edozein arlotan, honako arrazoi hauek direla-eta?".

Ezaugarri horiek berak sexuaren/generoaren aldagaiaren arabera aztertuta, agerian geratu da emakumezkoek, oro har, sentsibilizazio handiagoa dutela zenbait diskriminazioerikiko (4. grafikoa). Zehazki, gai hauetan ikusten da pertzepzio edo sentsibilizazio handiagoa: desgaitasuna, sexua/generoa eta itxura fisikoa.


4. grafikoa. Hautemandako diskriminazioaren ezaugarriak.
Orokorra, sexuaren/generoaren arabera (Bai %)



Iturria: 13. G., (1-15). "Esaten da pertsona batek (edo pertsona talde batek) diskriminazioa jasan duela, baldin eta beste baten aldean modu okerragoan tratatu badute, bere ezaugarri pertsonalen ondorioz. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa da diskriminazioa edo tratu okerragoa edozein arlotan, honako arrazoi hauek direla-eta?"

Hori bera lurralde historikoaren arabera aztertu dugu (5. grafikoa), eta datuen arabera, diskriminazio edo tratu desberdin handiagoa eragin dezaketen ezaugarri nagusiak modu bertsuan sumatzen dituzte hiru probintzietan. Hala ere, nabarmentzekoak dira Bizkaia eta Araba, handiagoak baitira pertzepzioaren ehunekoak aztertutako ia diskriminazio-arrazoi guztietan.

5. grafikoa. Hautemandako diskriminazioaren ezaugarriak. Orokorra, lurralde historikoaren arabera (Bai %)



Iturria: 13. G., (1-15). "Esaten da pertsona batek (edo pertsona talde batek) diskriminazioa jasan duela, baldin eta beste baten aldean modu okerragoan tratatu badute, bere ezaugarri pertsonalen ondorioz. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa da diskriminazioa edo tratu okerragoa edozein arlotan, honako arrazoi hauek direla-eta?"

Esparruz esparru

Atal honetan esparruz esparru aztertuko ditugu pertsona bat diskriminatzeke herritarren ustez alderdi edo ezaugarri negatiboenak edo kalte handien eragiten dutenak.

Orain arteko datuen arabera eta hasierako laburpen modura, esan daiteke diskriminazio ekonomiko (baliabide ekonomiko gutxi izatea) batez ere egoera hauetan sumatu dutela herritarrek: “etxebizitza eskuratzeko orduan” (% 56,1), “legea aplikatzeko” orduan (% 17,1) eta “zerbitzu publikoak jasotzeko orduan” (% 11,7). Bestalde, generoagatiko diskriminazioa (emakumezkoa izatea) lan-kontuekin oso lotuta hautematen dute, bai lanpostu bat eskuratzeko (% 36,9) eta bai erantzukizuneko postu bat eskuratzeko orduan (% 47,6). Eta aztertutako esparru guztietan alderdi errepikatuena eta zeharkakoena ijitoa izateagatiko diskriminazioa da. Diskriminazio hori nabarmen sumatzen da enplegua eskuratzeko orduan (% 42,4), etxebizitza eskuratzeko orduan (% 46) eta justizia-alorreko izapideetan (legearen aurrean) (% 15,6).

Etxebizitza eskuratzeko orduan

Etxebizitzari dagokionez, etxebizitza bat alokatzeko orduan adierazi dute batez ere sumatzen dutela diskriminazioa, baina diskriminazio hori ez dute kolektibo guztietan modu berean hautematen (15. taula). Horri dagokionez, bi aldagai hauetan sumatu dute desberdintasun-egoera modu nabarmenean: baliabide ekonomikoak eta etnia-jatorria. Batetik, baliabide ekonomiko gutxi izatea eta langabezian egotea nabarmentzen dira. Baina ijitoa izatea ere jende askok adierazi du; hain zuzen, etxebizitza alokatzeko orduan gehien diskriminatzen den kolektiboa dela iritzi diote.

15. taula. Diskriminazioa eragiten duten ezaugarri nagusiak: etxebizitza eskuratzeko orduan

| | Ezaugarri kaltegarriak | K. | % |
|--------------------------------|---|-----|------|
| Etxebizitza eskuratzeko orduan | Baliabide ekonomiko gutxi izatea | 673 | 56,1 |
| | Ijitoa izatea | 552 | 46,0 |
| | Atzerritarra izatea | 535 | 44,6 |
| | Langabezian egotea | 509 | 42,4 |
| | Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea | 254 | 21,2 |

Iturria: 8. G. “Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat etxebizitza bat alokatzeko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan”.

Lanpostu baterako hautatua izateko orduan

Lanpostu baterako hautatua izateko aukera-berdintasunari dagokionez, herritarren ustez ijitoak dira diskriminatuenak. Aurreko kasuan bezala, atzerritarra izatea ere ezaugarri kaltegarria gerta daitekeela adierazi dute herritarrek, baina lan-esparruan diskriminazioa areagotu dezaketen beste ezaugarri batzuk ere bai. Besteak beste, prestakuntza txikia izatea, emakumea izatea eta adinekoa izatea.

16. taula. Diskriminazioa eragiten duten ezaugarri nagusiak: lanpostu baterako hautatua izateko orduan

| | Ezaugarri kaltegarriak | K | % |
|---|----------------------------|-----|------|
| Lanpostu baterako hautatua izateko orduan | Ijitoa izatea | 509 | 42,4 |
| | Atzerritarra izatea | 466 | 38,8 |
| | Prestakuntza txikia izatea | 442 | 36,9 |
| | Emakumea izatea | 437 | 36,4 |
| | Adinekoa izatea | 322 | 26,9 |

Iturria: 10. G. "Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat lanpostu baterako hautatua izateko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan".

Erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan

Zehazki, erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko aukera aztertzean, oso deigarria izan da honako hau: lanpostu orokorraz galdetutakoan ez bezala, emakumea izatearen aldagaien ehunekoek nabarmen egin dute gora erantzukizuneko postuaz galdetzean (17. taula). "Kristalezko sabaia" edo zuzendaritza-postuetarako emakumeenganako diskriminazio espezifikoaren imajinario kolektiboan dago. Erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan kaltegarriak gerta daitezkeen beste ezaugarri batzuk hauek dira: atzerritarra izatea eta ijitoa izatea. Gaixotasun mental bat izatea lehenbizikoz ageri da kasu honetan ezaugarri kaltegarritzat.

17. taula. Diskriminazioa eragiten duten ezaugarri nagusiak: erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan

| | Ezaugarri kaltegarriak | K | % |
|--|------------------------------|-----|------|
| Erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan | Emakumea izatea | 571 | 47,6 |
| | Ijitoa izatea | 515 | 42,9 |
| | Prestakuntza txikia izatea | 468 | 39,0 |
| | Atzerritarra izatea | 389 | 32,4 |
| | Gaixotasun mental bat izatea | 323 | 26,9 |

Iturria: 12. G. "Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat erantzukizuneko postu baterako hautatua izateko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan".

Legeak aplikatzeko orduan

Legearen esparruan, baliabide ekonomiko gutxi izateak diskriminazioa eragin dezakeela uste dute herritarrek (18. taula). Eta horrezaz gain, atzerritarra izatea eta ijitoa izatea ere bai. Transexuala edo transgeneroa izatea lehenbizikoz adierazi dute kaltegarria gerta daitekeela pertsona batentzat legeak aplikatu behar zaizkionean.

18. taula. Diskriminazioa eragiten duten ezaugarri nagusiak: legeak aplikatu behar zaizkionean

| | Ezaugarri kaltegarriak | K | % |
|--|-------------------------------------|-----|------|
| Justizia / Legeak aplikatu behar zaizkionean | Baliabide ekonomiko gutxi izatea | 205 | 17,1 |
| | Ijitoa izatea | 187 | 15,6 |
| | Bat ere ez | 166 | 13,9 |
| | Atzerritarra izatea | 127 | 10,6 |
| | Transexuala edo transgeneroa izatea | 115 | 9,6 |

Iturria: 3. G. "Zure ustez, zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat legeak aplikatu behar zaizkionean? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan".

Zerbitzu publikoak jasotzeko orduan

Eta azkenik, zerbitzu publikoak jasotzeko orduan kaltegarriak gerta daitezkeen ezaugarriak aztertu ditugu. Berrito ere, imajinario kolektiboan, gutxiengo etniko batekoa izatea eta baliabide ekonomiko gutxi izatea hartu dira diskriminazio handiena eragin dezaketen ezaugarritzat (19. taula).

19. taula. Diskriminazioa eragiten duten ezaugarri nagusiak: zerbitzu publikoak jasotzeko orduan (%)

| | Ezaugarri kaltegarriak | K | % |
|---|----------------------------------|-----|------|
| Zerbitzu publikoak eskuratzeko orduan (hezkuntza, osasuna...) | Bat ere ez | 436 | 36,3 |
| | Atzerritarra izatea | 193 | 16,1 |
| | Baliabide ekonomiko gutxi izatea | 141 | 11,7 |
| | Ijitoa izatea | 115 | 9,6 |

Iturria: 6. G. "Zein ezaugarri gerta daiteke kaltegarria pertsona batentzat zerbitzu publikoak jasotzeko orduan? Mesedez, aipatu kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak, nahiz eta gutxi izan".

4

Aitortutako diskriminazioa

Atal honetan, pertzepzioei buruzko informazioa aztertu ondoren, “aitortutako diskriminazioa” esaten zaiona aztertuko dugu, hots, herritarrek jasan dutela aitortu duten diskriminazioari buruzko informazioa. Lehenbizi, zuzeneko diskriminazioari buruzko datuak emango ditugu, hau da, beren azalean bizi izan dutela aitortutakoari buruzkoak. Gero, zeharkako diskriminazioari buruzko datuak xehatuko ditugu, hau da, herritarrek ikusi edo entzun dutela adierazitako diskriminazioari buruzkoak. Eta azkenik, herritarrek zuzeneko zein zeharkako diskriminazioa zer esparrutan jasan edo ikusi zein entzun duten, horiek izango ditugu aztergai.

Zuzeneko diskriminazio aitortua


Orokorra

Biztanleen % 24,4k adierazi du bizitzan zenbaitetan sentitu dela diskriminatuta (6. grafikoa). Ehuneko hori bat dator Laparrak eta beste egile batzuek estatuari buruzko txostenean bildutako datuekin (2014an argitaratua¹); izan ere, txosteneko datuen arabera, % 31k aitortu zuen zenbaitetan sentitu dela diskriminatua bizitzaren joanean. Bereziki garrantzitsua da datu hori sexua/generoa aldagaia kontuan hartuta aztertzea, alde handiak eta esanguratsuak baitaude gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Diskriminaziozko egoerak bizi izan dituztela adierazi duten % 24,4 horietatik, % 61 emakumeak dira, eta % 38,6 gizonezkoak. Denbora-epe jakin batean bizi izandakoaz galdetuta, diskriminatuta sentitu dela adierazi duten pertsonen ehuneko handiagoa da nabarmen. Inkestatuen % 9,4k adierazi du diskriminatuta sentitu dela azken hamabi hilabeteetan. Datu hori ere bat dator Eurobarometroak 2019an² aurkeztutakoarekin (% 17).

¹Laparra, Miguel et al. (2014). *Los perfiles de la discriminación en España*. Madril: Centro de Publicaciones de Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad.

²Eurobarometer (2019). Discrimination in the EU. Recuperado de: https://ec.europa.eu/info/policies/justice-and-fundamental-rights/combating-discrimination/lesbian-gay-bi-trans-and-intersex-equality/eurobarometer-social-acceptance-lgbtq-people-eu-2019_en

6. grafikoa. Zuzeneko diskriminazio aitortua (%)



Iturria: 35. G (1-11). "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bategatik?". 36. G (1-11). "Eta, zehazki, zergatik sentitu zara diskriminatuta azken 12 hilabeteetan?"

Zuzeneko diskriminazio aitortua sexuaren/generoaren arabera aztertuta, nabarmenak dira gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko aldeak (20. taula). Hain zuzen ere, emakumeen % 28,9k esan du diskriminazioa jasan duela, eta hori bera adierazi duten gizonetzkoen ehunekoak % 19,6 egiten du. Hau da, oro har, emakumezkoa gehiago diskriminatzen da gizonetzkoa baino.

20. taula. Zuzeneko diskriminazio aitortua, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Emakumea | Gizona | Guztira |
|---------|----------|--------|---------|
| Bai | 28,9 | 19,6 | 24,4 |
| Ez | 71,1 | 80,4 | 75,6 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 180 | 113 | 293 |

Iturria: 35. G (1-11). "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bategatik?"

Lurralde historikoaren arabera aztertuta (21. taula), Araban eta Bizkaian jende gehiagok adierazi du diskriminatu egin dutela (zehazki, % 26k), Gipuzkoan bizi direnek baino (% 20,8).


21. taula. Zuzeneko diskriminazio aitortua, lurralde historikoaren arabera (%)

| | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Guztira |
|---------|-------|----------|---------|---------|
| Bai | 26,4 | 20,8 | 26,1 | 24,4 |
| Ez | 73,6 | 79,2 | 73,9 | 75,6 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 178 | 390 | 632 | 1.200 |

Iturria: 35. G (1-11). "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bategatik?"

Diskriminazioa zer arrazoi dela-eta jasan duten galdetuta, gehien erantzun duten arrazoiak sexuagatik izan da; zehazki, EAEko biztanleen % 10,5ek esan du. Gero, adinagatiko diskriminazioa (% 6,5ek) eta nazionalitate edo jatorriagatik (% 5,9) arrazoiak erantzun dituzte. Eta gutxien aipatu dituzten arrazoiak, berriz, hauek dira: auzo pobre/estigmatizatu batean bizitzeagatik (% 0,9), erlijioagatik (% 1,2), haurdun egoteagatik (% 1,3) eta sexu-identitateagatik (% 1,4).

7. grafikoa. Zuzeneko diskriminazio aitortua, arrazoiaren arabera (%)



Iturria: 35. G (1-11). "Pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara honako arrazoi hauetako bategatik?"

Diskriminazioa, sexuaren/generoaren arabera

Biztanleen % 10,5ek esan du sexu- edo genero-identitateagatik diskriminazioa jasan duela (7. grafikoa). Biztanleen % 89,4 ez da inoiz sentitu diskriminatuta emakumea edo gizona izateagatik, baina emakumeen kasuan ehunekoak behera egiten du (% 81,8) eta gizonezkoenak, berriz, gora (% 97,6). Horrenbestez, esan dezakegu gizonen aldean emakume askoz gehiago sentitu direla diskriminatuta sexu- edo genero-identitateagatik (22. taula). Hori horrela dela nabarmen geratu da, halaber, diskriminazioa zer maiztasunarekin jasan duten aztertu ondoren. Gizonezkoen % 0,3k "Askotan" jasan dute, eta hori bera esan dute emakumezkoen % 3,7k.

22. taula. Sexuagatik zuzeneko diskriminazio aitortua, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--------------|---------|----------|--------|
| Askotan | 2,1 | 3,7 | 0,3 |
| Zenbaitetan | 6,4 | 10,9 | 1,4 |
| la inoiz ez | 2,0 | 3,3 | 0,5 |
| Inoiz ere ez | 89,4 | 81,8 | 97,6 |
| Ed | 0,1 | 0,3 | 0 |
| Ee | 0 | 0 | 0,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz sexua dela eta?"

Adinagatiko diskriminazioa

Biztanleen % 6,5ek adierazi du adinagatiko diskriminazioa jasan duela (7. grafikoa). Diskriminazio hori sexuaren/generoaren arabera aztertuta, agerian geratu da emakumezko askoz gehiagok jasaten dutela arrazoi horrek eragindako diskriminazioa. Zehazki, emakumezkoen % 8k esan du bizi izan duela adinagatiko diskriminazioa, eta gizonezkoen dagokienez, % 5ek.

23. taula. Adinagatiko zuzeneko diskriminazio aitortua, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--------------|---------|----------|--------|
| Askotan | 2,4 | 2,1 | 2,7 |
| Zenbaitetan | 2,5 | 3,9 | 1,1 |
| la inoiz ez | 1,6 | 1,9 | 1,2 |
| Inoiz ere ez | 93,3 | 91,8 | 94,9 |
| Ed | 0,1 | 0,3 | 0 |
| Ee | 0 | 0 | 0,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz adina dela eta?"

Adin-taldearen arabera, 45-64 urte bitarteko pertsonak nabarmentzen dira bereziki, adin-tarte horretako jende askok esan baitu (gainerakoan aldean) diskriminazioa askotan jasan dutela (24. taula).

24. taula. Adinagatiko zuzeneko diskriminazio aitortua, adinaren arabera (%)

| | 18-29 urte | 30-44 urte | 45-64 urte | 65 urtetik gora |
|--------------|------------|------------|------------|-----------------|
| Askotan | 2,1 | 2,7 | 3,1 | 1,4 |
| Zenbaitetan | 1,7 | 3,1 | 3,9 | 0,6 |
| la inoiz ez | 3,2 | 0,7 | 1,7 | 1,2 |
| Inoiz ere ez | 93 | 93,3 | 90,9 | 96,8 |
| Ed | 0 | 0 | 0,4 | 0 |
| Ee | 0 | 0,2 | 0 | 0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 170 | 278 | 432 | 320 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz adina dela eta?"

Etnia- edo arraza-jatorriगतiko diskriminazioa

Biztanleen % 3,6k esan du etnia- edo arraza-jatorriगतiko diskriminazioa jasan duela (7. grafikoa). 25. taulan ikusten denez, arrazoi hori dela-eta diskriminazioa jasan dutela esan duten pertsonen artean (arrazo-marka dutenen artean), langabezian dauden pertsonen bizi izan dute diskriminazioa batez ere. Erretiratuta eta lanean ari diren pertsonen dagokienez, apenas gertatzen da diskriminazio-mota hori (% 96,7k eta % 99,3k inoiz ere ez du jasan), baina bai langabeen % 13,4k, eta inoiz ere ez % 86,6k. Beste modu batera esanda, lan-egoerak eragin handia du diskriminazioan.

25. taula. Etnia- edo arraza-jatorriगतiko zuzeneko diskriminazio aitortua, lan-egoeraren arabera (%)

| | Landuna | Langabea | Jubilatua | Ikaslea | Ordaindu gabeko etxeke langilea | Beste bat |
|--------------|---------|----------|-----------|---------|---------------------------------|-----------|
| Askotan | 0,3 | 4,2 | 0 | 0 | 2,5 | 0 |
| Zenbaitetan | 2,2 | 3,6 | 0 | 0,5 | 0 | 0 |
| la inoiz ez | 0,4 | 5,6 | 0,7 | 4,4 | 0 | 0 |
| Inoiz ere ez | 96,7 | 86,6 | 99,3 | 95,1 | 97,5 | 100 |
| Ed | 0,3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ee | 0,1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 585 | 133 | 342 | 71 | 63 | 3 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz etnia- edo arraza-jatorria dela eta?"

Etnia- edo arraza-jatorriगतiko diskriminazioan ez da sexuaren/generoaren araberako alde nabarmenik jaso.

26. taula. Etnia- edo arraza-jatorriगतiko zuzeneko diskriminazio aitortua, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--------------|---------|----------|--------|
| Askotan | 0,8 | 0,9 | 0,7 |
| Zenbaitetan | 1,5 | 1,5 | 1,6 |
| la inoiz ez | 1,3 | 1,4 | 1,2 |
| Inoiz ere ez | 96,3 | 96,1 | 96,5 |
| Ed | 0,1 | 0,3 | 0 |
| Ee | 0 | 0 | 0,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz etnia- edo arraza-jatorria dela eta?"

Nazionalitate edo jatorriगतiko diskriminazioa

Nazionalitate edo jatorriगतiko diskriminazioaren zuzeneko bizipena ugaria da jatorri atzerritarreko pertsonen kasuan. 27. taulan ikus daitekeenez, zuzeneko diskriminazio-mota hori oso ohikoa da immigranteen artean. Bereziki nabarmentzen dira Errumaniako, Afrikako, Saharaz hegoaldeko eta Magrebeko pertsonen erantzunak.

27. taula. Nazionalitate edo jatorriगतiko zuzeneko diskriminazio aitortua, jatorriaren arabera (%)

| | Espainia | Latinoamerika | Errumania | Afrika | Magreb | Asia | Beste bat |
|--------------|----------|---------------|-----------|--------|--------|------|-----------|
| Askotan | 1,1 | 9,0 | 11,7 | 22,9 | 0 | 0 | 0 |
| Zenbaitetan | 1,4 | 15,2 | 12,4 | 0 | 14,9 | 10,4 | 4,6 |
| la inoiz ez | 1,3 | 6,5 | 14,5 | 4,9 | 3,3 | 0 | 10,2 |
| Inoiz ere ez | 96,1 | 69,2 | 61,4 | 72,2 | 81,9 | 89,6 | 85,2 |
| Ed | 0,1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ee | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.088 | 60 | 13 | 9 | 13 | 7 | 10 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz jatorria dela eta?"

Sexuaren/generoaren aldagaiaren arabera aztertuta, ez da alde nabarmenik ikusten gizonetzkoen eta emakumezkoen erantzunen artean (28. taula).

28. taula. Nazionalitate edo jatorriगतiko zuzeneko diskriminazio aitortua, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--------------|---------|----------|--------|
| Askotan | 1,7 | 1,5 | 1,9 |
| Zenbaitetan | 2,4 | 2,6 | 2,2 |
| la inoiz ez | 1,8 | 1,7 | 2,0 |
| Inoiz ere ez | 93,9 | 93,9 | 93,9 |
| Ed | 0,1 | 0,3 | 0 |
| Ee | 0 | 0 | 0,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz jatorria dela eta?"

Orientazio sexualagatiko eta/edo genero-identitateagatiko diskriminazioa

Orientazio sexualagatiko eta/edo genero-identitateagatiko diskriminazioa askoz gutxiago adierazi dute pertsona heterosexualek. Hau da, LGB kolektiboko hamar lagunetik ia hiruk esan du diskriminatuta sentitu dela zenbaitetan orientazio sexuala dela eta.

29. taula. Orientazio sexualagatiko edo genero-identitateagatiko zuzeneko diskriminazio aitortua, orientazio sexualaren arabera (%)

| | Heterosexuala | LGB |
|--------------|---------------|------|
| Askotan | 0,0 | 2,3 |
| Zenbaitetan | 0,0 | 25,0 |
| Ia inoiz ez | 0,4 | 0,0 |
| Inoiz ere ez | 99,4 | 72,7 |
| Ed | 0,2 | 0,0 |
| Ee | 0,0 | 0,0 |
| Guztira | 100 | 100 |
| K | 1.131 | 44 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz orientazio sexuala edo genero-identitatea dela eta?"

Sexuaren/generoaren aldagaien ez dago alde handirik gizonezkoen eta emakumezkoen artean, orientazio sexualagatiko edo genero identitateagatiko diskriminazioan (30. taula).

30. taula. Orientazio sexualagatiko edo genero-identitateagatiko zuzeneko diskriminazio aitortua, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--------------|---------|----------|--------|
| Askotan | 0,1 | 0 | 0,2 |
| Zenbaitetan | 0,9 | 0,4 | 1,4 |
| Ia inoiz ez | 0,4 | 0,5 | 0,4 |
| Inoiz ere ez | 98,4 | 98,9 | 97,9 |
| Ed | 0,1 | 0,3 | 0 |
| Ee | 0 | 0 | 0,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| Kop. | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz orientazio sexuala edo genero-identitatea dela eta?"

Baliabide ekonomiko gutxi izateagatiko diskriminazioa

Baliabide ekonomiko gutxi izateagatiko diskriminazioan, nabarmentzeko modukoak dira 45-64 urte bitarte dituzten taldeko pertsonen erantzunak (31. taula). Izan ere, adin-tarte horretako pertsonen artean hauteman da arrazoi hori dela-eta zuzeneko diskriminazioa askotan.

31. taula. Baliabide ekonomiko gutxi izateagatiko zuzeneko diskriminazio aitortua, adinaren arabera (%)

| | 18-29 urte | 30-44 urte | 45-64 urte | 65 urtetik gora |
|--------------|------------|------------|------------|-----------------|
| Askotan | 0 | 1 | 1,4 | 0 |
| Zenbaitetan | 0,3 | 2,3 | 1,3 | 1,0 |
| la inoiz ez | 4,3 | 0,9 | 0,8 | 0,4 |
| Inoiz ere ez | 95,4 | 95,7 | 96,1 | 98,6 |
| Ed | 0 | 0 | 0,4 | 0 |
| Ee | 0 | 0,2 | 0 | 0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 170 | 278 | 432 | 320 |

Iturria: 35. G (1-11). "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz baliabide ekonomiko gutxi izateagatik?"

Sexuaren/generoaren aldagaiaren arabera aztertuta, ez da alde nabarmenik ikusten gizonezkoen eta emakumezkoen artean, baliabide gutxi izateagatiko diskriminazioari dagokionez (32. taula).

32. taula. Baliabide ekonomiko gutxi izateagatiko zuzeneko diskriminazio aitortua, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--------------|---------|----------|--------|
| Askotan | 0,8 | 0,6 | 1,0 |
| Zenbaitetan | 1,3 | 1,0 | 1,6 |
| la inoiz ez | 1,2 | 1,3 | 1,1 |
| Inoiz ere ez | 96,6 | 96,8 | 96,3 |
| Ed | 0,1 | 0,3 | 0 |
| Ee | 0 | 0 | 0,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz baliabide ekonomiko gutxi izateagatik?"

Gehiegizko pisua edo obesitatea edukitzeagatiko diskriminazioa

Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago (ehunekotan) jasaten dute gehiegizko pisua edo obesitatea edukitzeagatiko zuzeneko diskriminazioa (lodifobia) (33. taula). Zehazki, emakumeen % 3,2k esan du bizi izan duela, eta hori bera esan duten gizonezkoek % 1,9 egiten dute.

33. taula. Gehiegizko pisua edo obesitatea edukitzeagatiko zuzeneko diskriminazio aitortua, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--------------|---------|----------|--------|
| Askotan | 0,8 | 1,3 | 0,3 |
| Zenbaitetan | 1,4 | 1,5 | 1,2 |
| la inoiz ez | 0,4 | 0,4 | 0,4 |
| Inoiz ere ez | 97,3 | 96,5 | 98,1 |
| Ed | 0,1 | 0,3 | 0 |
| Ee | 0 | 0 | 0,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz gehiegizko pisua edo obesitatea edukitzeagatik?"

30-44 urte bitarteko pertsona gehiagok erantzun du, gainerako adin-taldeko pertsonen aldean, gehiegizko pisua edo obesitatea edukitzeagatik jasan dutela diskriminazioa (34. taula).

34. taula. Gehiegizko pisua edo obesitatea edukitzeagatiko zuzeneko diskriminazio aitortua, adinaren arabera (%)

| | 18-29 urte | 30-44 urte | 45-64 urte | 65 urtetik gora |
|--------------|------------|------------|------------|-----------------|
| Askotan | 0 | 1,8 | 0,8 | 0,3 |
| Zenbaitetan | 0,6 | 3,3 | 1,4 | 0,1 |
| la inoiz ez | 1,5 | 0 | 0,2 | 0,4 |
| Inoiz ere ez | 97,9 | 94,8 | 97,2 | 99,1 |
| Ed | 0 | 0 | 0,4 | 0 |
| Ee | 0 | 0,2 | 0 | 0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 170 | 278 | 432 | 320 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz gehiegizko pisua edo obesitatea edukitzeagatik?"

Desgaitasunen bat izateagatiko diskriminazioa

Desgaitasunen bat izateagatiko zuzeneko diskriminazioan, kapazitismo ere esaten zaio, ez da alde nabarmenenik hauteman inkestatutako pertsonaren sexua/generoa dela eta (35. taula).

35. taula. Desgaitasunen bat izateagatiko zuzeneko diskriminazio aitortua, sexuaren/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--------------|---------|----------|--------|
| Askotan | 0,8 | 1,1 | 0,6 |
| Zenbaitetan | 0,6 | 0,4 | 0,8 |
| la inoiz ez | 0,5 | 0,4 | 0,6 |
| Inoiz ere ez | 97,9 | 97,9 | 98 |
| Ed | 0,1 | 0,3 | 0 |
| Ee | 0 | 0 | 0,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 35. G. "Zu, pertsonalki, diskriminatuta sentitu al zara inoiz desgaitasunen bat izateagatik?"

Zuzeneko diskriminazio aitortuaren esparruak

Zuzeneko diskriminazioa zer esparrutan edo egoeratan gertatzen den aztertu dugu, eta 33. taulan ikus daitekeenez, lan-esparrua da aipatuena diskriminazio-mota ia guztietan. Aldagai hauetan da nabarmena diskriminazioa: adina (% 40), sexua (% 24,3), desgaitasunen bat (% 24,2), LGTB kolektiboa (% 18,4) eta etnia- edo arraza-jatorriarekin zerikusia dutenak (% 15,5) eta nazionalitatea (% 18,1). Bigarren esparru aipatuena kalea da.

Bizipen pertsonaletan, datuek agerian utzi dute diskriminazioaren ehunekoak handi samarrak direla hezkuntzaren esparruan eta familia barruan.

36. taula. Zuzeneko diskriminazioa: esparruak eta arrazoiak (%)

| Guztizkoaren % | Sexua | Jatorria | Nazionalitatea | LGTB | Adina | Erijihoa | Pobrezia | Desgaitasuna | Obesitatea | Auzoa | Haurdun |
|---|-------|----------|----------------|------|-------|----------|----------|--------------|------------|-------|---------|
| Lana | 24,3 | 15,5 | 18,1 | 18,4 | 40,0 | 5,8 | 10,0 | 24,2 | 10,9 | 12,4 | |
| Hezkuntza | 6,1 | 6,3 | 3,3 | 7,6 | 2,0 | | 3,8 | 19,0 | | | |
| Zerbitzu publikoak jasotzea | 1,2 | | 2,1 | | 2,0 | | 11,5 | 10,0 | | 12,6 | |
| Administrazio publikoko arreta | 0,7 | 4,4 | 3,5 | | 1,9 | | 9,3 | 12,3 | | | |
| Poliziaren trataera | 1,2 | | 1,9 | | 2,0 | | 3,8 | 6,4 | | | |
| Politikan eta/edo gizartean parte hartzea | 0,8 | | 1,3 | | | | | | | | |
| Garraio publikoa | | | | | | | | | | | |
| Dendetan sartzea | | 0,7 | | | | | | | | | |
| Aisialdirako tokietan sartzea (tabernak, jatet. edo disko.) | 1,9 | | | 4,6 | 2,6 | | | | | | |
| Familia barruan | 3,4 | | 1,4 | | 3,9 | | 3,8 | 12,4 | | 12,6 | |
| Lagunen eta ezagunen artean | 0,7 | 1,9 | | | | 9,1 | 2,2 | | | | |
| Auzoan edo komunitatean | | 2,2 | 1,9 | | | | | | | | |
| Kalean | 9,5 | 10,8 | 9,9 | 12,4 | 3,2 | 23,2 | 6,0 | 6,7 | 9,0 | 20,6 | |
| Beste toki edo esparru batean (zehaztu) | 1,9 | 6,6 | 4,7 | | | | | | | | |
| Ed/Ee | 61,8 | 55,8 | 58,2 | 59,3 | 53,5 | 67,7 | 66,9 | 53,2 | 83,2 | 67,0 | 100 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 127 | 45 | 73 | 19 | 80 | 17 | 41 | 25 | 33 | 13 | 18 |


Iturria: 37. G. "Zein esparru edo egoeratan sentitu zara diskriminatuta, honako hauek direla-eta?"

Zeharkako diskriminazio aitortua

Orokorra

Inguruko norbaitek diskriminazioa jasan duela entzun edo ikusi duten galdetu diegu EAEko biztanleei, eta 8. grafikoa jaso ditugu haiek gehien adierazitako diskriminaziozko jarrerak. Zeharkako diskriminaziozko bizipenak eragin dituzten hiru arrazoi aipatuena hauek dira: etnia- edo arraza-jatorria (% 11,2), sexua/generoa (% 6,4) eta nazionalitatea edo jatorria (% 5,7).

8. grafikoa. Zeharkako diskriminazio aitortua, arrazoiaren arabera (%)



Fuente: P43 "Independientemente de su situación personal ¿en los últimos 12 meses ha sido testigo (ha visto u oído) de alguna situación de discriminación sufrida por alguna persona cercana a usted por motivo de....?"

Zeharkako diskriminazio aitortuaren esparruak

Zeharkako diskriminazioaren bizipenak jaso ditugu 37. taulan, kontuan hartuta diskriminaziozko egoera zer esparrutan gertatu dela entzun edo ikusi duten eta zer arrazoik eragin zuen. Datuek adierazten dutenez, batez ere bi esparru hauetan gertatu da diskriminazioa: lan-esparruan eta kalean.

37. taula. Zuzeneko diskriminazioa: esparruak eta arrazoiak (%)

| Guztizkoaren % | Sexua | Jatorria | Nazionalitatea | LGTB | Adina | Erljioa | Pobrezia | Desgaitasuna | Obesitatea | Auzoa | Haurdun |
|---|-------|----------|----------------|-------|-------|---------|----------|--------------|------------|-------|---------|
| Lana | 3,9 | 4 | 2,4 | 0,8 | 2,4 | 0,7 | 0,7 | 0,6 | 0,9 | 0,1 | 0,4 |
| Hezkuntza | 0,7 | 0,8 | 0,5 | 0,9 | 0,2 | 0,2 | 0,2 | 0,6 | 0,2 | 0,1 | |
| Zerbitzu publikoak jasotzea | 0,1 | 0,5 | 0,5 | 0 | 0,2 | 0,1 | 0,2 | 0,1 | | | |
| Administrazio publikoko arreta | 0,2 | 0,6 | 0,5 | 0,2 | 0,1 | 0,5 | 0,1 | 0,1 | | | |
| Poliziaren trataera | 0,1 | 0,2 | 0,2 | | 0,1 | 0,1 | | | | | |
| Politikan eta/edo gizartean parte hartzea | 0,1 | 0,2 | 0,2 | | 0,1 | | | | | | |
| Garraio publikoa | 0,1 | 0,3 | 0,4 | | | 0,1 | | 0,2 | 0,2 | | |
| Dendetan sartzea | | 0,2 | 0,2 | | | | 0,1 | 0,1 | 0,1 | | |
| Aisialdirako tokietan sartzea (tabernak, jatet. edo disko.) | 0,5 | 0,2 | 0,1 | 0,1 | | 0,1 | | | | | |
| Familia barruan | 0,2 | | | 0,2 | 0,1 | | 0,2 | | | | |
| Lagunen eta ezagunen artean | 0,2 | 0,3 | 0,3 | 0,1 | 0,1 | 0,2 | | 0,1 | 0,2 | 0,1 | |
| Auzoan edo komunitatean | 0,2 | 0,4 | 0,4 | 0,1 | 0,2 | 0,2 | 0,1 | | | | |
| Kalean | 2,3 | 6,4 | 2,9 | 1,4 | 0,8 | 3,3 | 1,4 | 1,2 | 2,1 | 0,6 | |
| Beste toki edo esparru batean (zehaztu) | 0,2 | 0,2 | 0,3 | 0,1 | 0,1 | 0,1 | | 0,1 | 0,1 | | |
| Ed/Ee | 93,8 | 89,3 | 94,1 | 97,2 | 96,1 | 95,9 | 97,6 | 97,9 | 97,4 | 99,3 | 99,5 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 1.200 | 1.200 | 1.200 | 1.200 | 1.200 | 1.200 | 1.200 | 1.200 | 1.200 | 1.200 |

Iturria: 44. G. "Zein esparru edo egoeratan ikusi edo entzun duzu zure ingurukoren batek diskriminazioa jasan duela honako arrazoi hauetako bat dela-eta?".

5


Jarrerak diskriminazioaren aurrean

Diskriminazioa taldeko pertzepzioen eta norberaren edo hirugarrenaren bizipenen bitartez aztertzeaz gain, gizartean dauden ezkutuzko aurreiritzi eta estereotipotatik abiatuta ere lantzen da. Hala, diskriminazio-jarrera zehatzak antzeman ahal izango dira. Nolanahi ere, gizarte anitzean jarrera isilagoak eta beste batzuk, ordea, irekiagoak identifikatuko dira.

Bizikidetzaren eta sareak


Jarrerak neurtzeko funtsezko osagaia da biztanleen kolektibo edo talde jakinekin bizikidetzeko aurrejoera negatiboa edo gaitzespena izatea. Ildo horri eutsiz, Euskadiko biztanleei auzo berean kolektibo zehatzarekin bizikidetzen jardunez gero, “erosotasun” mailari buruz galdetu zaie. 9. grafikoan ikusitakoaren arabera, Euskadiko biztanleen artean, nagusiki, hiru kolektibo nabarmentzen dira “deserosotasun” handiena sortzeagatik: bereziki ijitoak (% 50 ez litzateke deseroso sentituko bizilagunak izanez gero), atzerritarrak (% 72,4ri ez lioke enbarazurik egingo) eta musulman-erlijioako pertsonak (% 68,4k ez luke eragozpenik izango). Horrenbestez, orokorrean, kultur dibertsitatearekin eta, bereziki, ijitoekin bizikidetzaren aldeko jarrera negatiboak azpimarra daitezke. Jarrera positiboak sortzen dituzten talde edo kolektiboei erreparatuz gero, obesitatea duten pertsonak, langabetuak edo adinekoak aurkituko ditugu.

9. grafikoa. Ez lioke inolako enbarazurik egingo halako pertsonekin bizikidetzea (%)



Iturria: 14. G. "Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?"

10. grafikoa. Ez lioke inolako enbarazurik egingo halako pertsonekin bizikidetzea sexu/generoaren arabera (%)



Iturria: 14. G. Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?"

Sexu/genero aldagaia kontuan hartuta, bizilagunen artean ijitoekin bizikidetzeari buruz erantzutean emakume eta gizonetan alde adierazgarriak daude. Emakumeek kolektiboarekin bizikidetzea gutxiago onartzen dute. Zehazki, % 47,9 ez litzateke inola ere deseroso sentituko, gizonen % 52,8ren aldean (10. grafikoa).

Aurrerantzean, analisia Euskadiko gizarteari bizikidetzeko orduan erosotasun gutxien sortzen dioten hiru kolektibotan oinarrituko da: ijitoak, musulman-erlijioak eta immigranteak.

Ijitoekin bizikidetzeari dagokionez, “adin” aldagaia kontuan hartuta, alde esangarriak daude gazteenen eta adinekoenen aurretiko joeraren artean. Lehenengoen % 72,7k ez luke inolako eragozpenik izango bizikidetzeko; bien bitartean, adinekoetan ehuneko hori bakarrik % 37,5 da. Horiek erabat prest egongo lirateke (38. taula). Jatorriaren arabera ere onartze-mailak nabarmenki aldatzen dira. Orokorrean, atzerrikoek azaltzen dute prestutasun handiagoa ijitoekin bizi ahal izateko. Zehatz-mehatz esanda, magrebtarrek eta afrikarrek gehiago onartzen dute, asiarren eta latinoen aldean. Eta, azkenik, “erlijio” aldagaia azpimarra daiteke. “Beste erlijio batzuk” dituzten pertsonen artean onartze-mailak altuagoak dira modu adierazgarrian. Izan ere, % 84,2, “katolikoek” % 44,7rekin erkatuz gero.

38. taula. Ez lioke inolako enbarazurik egingo ijitoekin bizikidetzea (%)

| | Ijitoak | Ez nintzen deseroso sentituko bizilagunak balira (%) |
|----------|---------------------------------|--|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 72,7 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 54,8 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 47,9 |
| | 65 urtekoak eta hortik gorakoak | 37,5 |
| Jatorria | Espainia | 46,8 |
| | Latinoamerika | 77,8 |
| | Errumania | 92,6 |
| | Afrika | 100,0 |
| | Magreb | 100,0 |
| | Asia | 69,2 |
| | Beste batzuk | 79,1 |
| Erljioa | Katolikoa | 44,7 |
| | Agnostiko atea | 55,9 |
| | Beste erlijio batekoa | 84,2 |

Iturria: 14. G. “Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzazuke deseroso (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?”

Musulman-erlijioak dituzten pertsonen onartze-maila aztertuz gero, alde adierazgarriak daude aldagai soziodemografikoen artean. Zehatzago erakusten dituzte gizarte-hautemateen profilak.

Kasu honetan, pertsona musulmanak onartzeko orduan, gazteenek dute mailarik altuena (% 84,7) eta, gainera, modu adierazgarrian, gainerako adin-taldeekin alderatzen baditugu (39. taula). 65 urtetik gorakoak, ordea, berenerantzunengatik nabarmentzen dira, adin-talde guztietatik bizikidetzeko aurretiko joera txikiena azaltzen baitute (% 56,3). Adinaz gain, “jatorri” aldagaiaren barruan modu esangarrian azpimarra daitezke, bizikidetzean onarpen-maila txikiagoa izateagatik, bertako pertsonak (% 65,6). Ikasketa-mailari eutsiz, ikasketa-maila handiagoekin musulman-erlijioako pertsonekin bizikidetzen jarduteko onarpen-maila altuagoa dago. Erlijioa kontuan hartuta, pertsona katolikoak nabarmentzen dira eragozpen handienak (% 64,6) dituztelako. Gainerako erlijioetako % 92,5ek ez luke bizikidetzeko eragozpenik izango.

39. taula. Ez lioke inolako enbarazurik egingo musulman-erlijioako pertsonekin bizikidetzea (%)

| | Musulman-erlijioako pertsonak | Ez nintzen deseroso sentituko bizilagunak balira (%) |
|----------------|--------------------------------------|--|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 84,7 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 73,4 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 67,7 |
| | 65 urtekoak eta hortik gorakoak | 56,3 |
| Jatorria | Espainia | 65,6 |
| | Latinoamerika | 92,9 |
| | Errumania | 92,6 |
| | Afrika | 100,0 |
| | Magreb | 100,0 |
| | Asia | 100,0 |
| | Beste batzuk | 100,0 |
| Ikasketa-maila | Lehen mailako ikasketarik ez dutenak | 61,3 |
| | Oinarrizko bigarren mailakoak | 71,1 |
| | LH Bigarren mailakoak | 69,5 |
| | Goi-mailakoak | 72,7 |
| Erlijioa | Katolikoa | 64,6 |
| | Agnostiko atea | 72,3 |
| | Beste erlijio batekoa | 92,5 |

Iturria: 14. G. “Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?”

Atzerriko pertsonekin bizikidetzearen ideia 65 urtetik gorako pertsonen taldean ez da hain erakargarria (40. taula). % 64,2k onartzen du ez lukeela inolako eragozpenik izango. Bien bitartean, pertsona gazteagoentzat ehunekoa % 81,2ra iristen da. Gainera, aldagai soziodemografiko adierazgarria da “jatorria”. Bi gurasoak atzerrikoak dituzten pertsonen % 93,1 oso prest dago beste jatorri bateko pertsonekin bizikidetzen jardun behar badu.


40. taula. Ez lioke inolako enbarazurik egingo immigranteekin bizikidetzea (%)

| | Immigranteak | Ez nintzen deseroso sentituko bizilagunak balira (%) |
|----------|---------------------------------|--|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 81,2 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 73,4 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 74,5 |
| | 65 urtekoak eta hortik gorakoak | 64,2 |
| Jatorria | Biak Espainiakoak | 70,6 |
| | Mistoa | 75,1 |
| | Biak atzerritarrak | 93,1 |

Iturria: 14. G. "Zuri, pertsonalki, zenbateraino irudituko litzaizuke deserosoa (oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo ezertxo ere ez) zure auzoan honelako pertsona bat edukitzea?"

Bizikidetze-harremanez gain, kolektibo zehatzekiko jarrerak eta aurreiritziak neurtzeko beste modu bat da adiskidetasun-harremanak edo ingurune hurbileneko pertsona ezagunak kontsultatzea (11. grafikoa). Erantzunei erreparatu, azpimarragarria da baliabide ekonomiko gutxiago dituzten taldeekiko (% 85,4), atzerrikoekiko (% 85) edo desgaitasunen bat duten pertsonekiko (% 81) hurbiltasuna. Atzetik datoz LGBTBI pertsonekin harremanak (% 76,3). Ehuneko alderik handienarekin, berriz, adiskidetasun-harreman gutxi daude ijitoekin (% 38,3) eta beste erlijio batzuetakoekin, hala nola musulmanak edo judutarrak, (% 57,4).

11. grafikoa. Adiskidetasun-harremanak edo pertsona ezagunak (%)




Iturria. 18. G. "Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik?"

Sinesmenak eta dibertsitatearekiko iritzia

Gizarte-homogeneotasunaren ezkutuko helburuak, sarritan, dibertsitatea arazo modura ulertzea eragiten du eta bertute edo aberastasun kolektiboaren ikuspegia baztertzen da. Ildo horri jarraiki, funtsezkoa da dibertsitatearen aurrean gizartearen iritziari hurbiltzeko tresnak garatzea: dibertsitatearekiko jarrera. 12. grafikoa hainbat jarreraren aurrean Euskadiko gizartearen adostasun-maila ikus daiteke. 0-10 eskalan neurtu da: 0 “ez du onartzen erabat” da eta gehieneko balioak, 10ek, “erabat onartzen du” adierazten du. Tarteko aukerak ere badaude. Item bakoitzean lortu den batez besteko puntuazioan oinarrituta eta puntu gehienetik gutxienera hierarkia kontuan hartuta, onartze-maila zehatza definitu da. Hau da, batez besteko puntuaziorik altuenak, 8 puntutik gorakoak, “onartze-maila altukotzat” jo dira (more iluna); batez beste 5 eta 8 bitartean kokatzen direnei “Onartze-maila ertaina” eman zaie (more ertaina); eta, azkenik, batez beste 5 puntutik beherakoek “onartze-maila baxua” dute (more argia).

12. grafikoa. Hainbat jarreraren aurrean onartze-maila (batez bestekoa)



Iturria: 15. G. “Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek, Otik 10era bitarteko eskalan, kontuan hartuta 0 erabat gaitzestea dela eta 10 erabat onestea”.

Lortutako datuak kontuan hartuta, Euskadiko gizarteak familia-, sexu- eta genero dibertsitatearekin zerikusia duten gaietan onartze-maila altua duela baieztatu daiteke. Onartze-mailarik altuena arrazen arteko bikoteetan (10 punturen gainean 8,89), guraso bakarreko familietan (batez beste 8,85 puntu) eta sexu bereko pertsonen arteko senar-emazteetan (batez besteko 8,44 puntu) ageri da. Era berean, transexualei dagokien generoa emateak ere diskriminazio-jarrera baxua adierazten du. Oneste-mailak batez beste 8,36 puntu lortu ditu. Halaber, erantzukizun-postuetan pertsona gazteen (batez beste 8,43 puntu) edo seme-alabak dituzten emakumeen (8,22 puntu) kontratazioei buruzko jarduerak onartze-maila altua (batez besteko puntuazioa) duten taldean kokatzen dira.

Aurreko ekintzek baino onespentxikiagoa dute “onarpen ertain” gisa sailkatutako aukerak, beraz, eztabaidagarriagoak dira. Batez besteko puntu gutxiago lortu dituzte honako aukera hauek: GIB/Hiesa duten pertsonekin lan-bizikidetzan onestea (7,93 puntu), bizitokian meskitak eraikitzea (6,46) edo emakume musulmanek espazio publikoan beloa erabiltzea (6,42 puntu). Posiziorik baxuenean desgaitasunen bat duten pertsonak lehentasunez kontratatzearen aurrean gaitzespen-jarrera handiagoa dugu (6,39 puntu).

Eta, azkenik, puntuaziorik baxuenak dituzten jarrerak, hau da, onspen-mailarik txikiena duten jarduerak aurkituko ditugu. Hemen hurrengo hauek aurki daitezke: langile gizonezkoak lehentasunez kontratatzea ia erabat gaitzesten da (batez beste 1,55 puntu); pertsona gazteak (4,72 puntu) edo Espainian jaiotako pertsonak (4,91 puntu) lehentasunez kontratatzearekin batera.

Sexu/genero aldagaiaren arabera erantzunak aztertuz gero, alde adierazgarriak daude gizon eta emakumeetan zerrendatutako lau jarrerari dagokionez (41. taula). Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan babesten dituzte honako hauek: zuzendaritza eta/edo erantzukizuneko lanpostuan seme-alabak dituen emakumea sustatzea (8,43 puntu), sexu bereko pertsonen arteko ezkontza (8,57 puntu) eta bikoteari lotu gabeko amatasuna (8,96 puntu). Gizonek, ordea, emakumeek baino gehiago babesten dute prestakuntza eta esperientzia berdina izanik, gizonak lehentasunez kontratatzea (1,86 puntu).

41. taula. Hainbat jarreraren aurrean onespren-maila sexu/generoaren arabera (batez besteko puntuazioa)


| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--|---------|----------|--------|
| Prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, enpresa batek gizon bat kontratatzea emakume bat baino lehen | 1,55 | 1,27 | 1,86 |
| Seme-alabak dituen emakume bati zuzendaritzako edo erantzukizuneko postu bat ematea | 8,22 | 8,43 | 8,00 |
| Sexu bereko bi pertsona ezkondu ahal izatea | 8,44 | 8,57 | 8,29 |
| Bikotekiderik gabeko emakume batek seme-alabak edukitzeko erabakia hartzea | 8,85 | 8,96 | 8,74 |

Iturria:15. G. "Mesedez, adierazi zenbateraino onesten edo gaitzesten dituzun aukera hauek, Otik 10era bitarteko eskalan, kontuan hartuta 0 erabat gaitzestea dela eta 10 erabat onestea". (Esangarritasuna alderatzea.T-Student).

Banako tolerantzia eta kolektiboa

Aurreko ataleko ildo beretik, puntu honetan dibertsitate eta bere talde/kolektiboekiko Euskadiko Gizartearen tolerantzia garbia aztertuko da. Horretarako, Otik 10era bitarteko eskalaz baliatuko da: 0 inola ere ez tolerantzia eta 10 oso tolerantzia. Zehazki, 12. grafikoan banako tolerantziaren (batez bestekoa) eta Euskadiko gizartearen tolerantziaren (batez bestekoa) pertzepzioa batera ikus daitezke. 13. grafikoan antzeman daitekeenez, orokorrean, pertsonak beren burua Euskadiko gizartearena baino tolerantziagozat jotzen dute aztertutako ia alderdi guztietan.

13. grafikoa. Talde zehatzekiko tolerantzia. Banako kokapena eta kolektiboa (batez bestekoa)



Iturria:19-34 G. "Tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla? Non kokatuko zenuke Euskadiko gizartea eskala horretan, kontuan hartuta 0 "batere tolerantzia" eta 10 "oso tolerantzia" direla?"

Tolerantzia-mailarik altuena “pertsona gizen”, “bitarteko gutxi dituzten” eta “LGB pertsonetikiko” ematen da. Beste muturrean, batez besteko puntu gutxiagorekin eta, ondorioz, tolerantzia-maila baxuagoarekin, daude “matxismoa”, “ijitoak” eta “Islam erlijioan sinesten duten pertsonak”. Berriz ere, datuak kontuan hartuta, arestian azaldutako guztiarekin bat datoz. Hala, argi eta garbi eta etengabe azpimarratzen dira bi kolektibo gizarte-distantzia handiagoa zehazteko: musulman-erlijio pertsonak eta ijitoak.

Sexu/generoaren arabera (42. taula), kontsultatutako emakumeei jarraiki, intolerantzia handiagoa dute ondorengo alderdi hauetan: matxismoa (1,05 puntu), ijitoak (6,19) eta Islama (6,51); bien bitartean, batez besteko puntu gehiago ematen dituzte eta, ondorioz, tolerantzia handiagoa dute obesitatea duten pertsonetikiko (9,03), LGTBI kolektiboarekiko (8,38) eta feminismoarekiko (7,36).

42. taula. Talde desberdinekiko tolerantzia.Kokapen pertsonala eta soziala.
Sexu/generoaren arabera (batez bestekoa)

| Tolerantzia | Emakumea | | Gizona | |
|---------------------------|----------|---------|---------|---------|
| | Banakoa | Soziala | Banakoa | Soziala |
| Atzerritarrak | 8,01 | 6,64 | 8,01 | 6,68 |
| Matxismoa | 1,05 | 4,56 | 1,76 | 4,22 |
| Ijitoak | 6,19 | 4,77 | 6,36 | 4,90 |
| Islama | 6,51 | 5,06 | 6,64 | 5,34 |
| LGTBI | 8,38 | 7,63 | 8,18 | 7,51 |
| Feminismoa | 7,36 | 6,54 | 6,70 | 6,45 |
| Bitarteko ekonomiko gutxi | 8,57 | 7,40 | 8,62 | 7,64 |
| Obesitatea | 9,03 | 8,02 | 8,84 | 8,17 |

Iturria:19-34 G. “Tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 “batere tolerantzia” eta 10 “oso tolerantzia” direla? Non kokatuko zenuke Euskadiko gizartea eskala horretan, kontuan hartuta 0 “batere tolerantzia” eta 10 “oso tolerantzia” direla?

6

Salaketak eta jarduketak

Diskriminazio aitortua deitutakoa kuantifikatzeaz gain, atal honek diskriminazio horren ondorioz egindako salaketak zehazten ditu, salaketarik eza kontuan hartuta. Salaketarik eza da diskriminazioa jasandako biktimek, askotariko arrazoiak direla-eta, gertatutakoa salatzen ez dutenean emandako egoera. Ondorioz, erreklamazio kopurua benetako zifra baino nabarmen txikiagoa da (Cidalia, 2013). Horrez gain, eskubideei eta izapideei buruzko ezagutza eta erakundeen ospea esploratzen dira.

Salaketak eta erreklamazio formalak


Salaketarik eza eta bere arrazoiak

Edozein diskriminazio-mota jasan duela aitortutako biztanleria osotik (295), bakarrik % 5,1 salatzera edo erreklamazio formal bat egitera animatzen da, eta % 40,9k ez du horrelakorik egiten (14. grafikoa). Azpimarratu behar da, galdera horrek nolabaiteko deserosotasuna eragiten duela, “Ez du erantzuten” altuak (% 54) islatzen duen bezala; ziur aski, horren atzean desiragarritasun sozialaren efektuaren ondoriozko salaketarik eza dago. Diskriminazioa salatzeko erabakiari dagokionez, ez dugu gizonen eta emakumeen artean alde nabarmenik aurkitzen.

Diskriminazio-mota bat salatu ez dutela dioten pertsonen dagokienez (% 40,9), interesgarria da salatu ez izanaren arrazoiak esploratzea (15. grafikoa). Aukera guztien artean nabarmenduz, arrazoi aipatuena (% 52,3) “Ez du ezertarako balio” da. Horrez gain, % 15,3k jarrera diskriminatzaileak normalak edo ohikoak direla dio; beste batzuek (% 6,9), aldiz, larriak izan ez direla diote. Horrela, salaketarik ezaren atzean erakundeek arazoak konpontzeko duten gaitasunaren


aurreko konfiantza eza eta zenbait jarrera diskriminatzaileen normalizazioa edo naturalizazioa egon daitezke.

14. grafikoa. Salaketa edo erreklamazio formala sexu/generoaren arabera (%)



Iturria: 38. G. "Egin edo jarri al zenuen inolako kexa, erreklamazio formala edo salaketarik diskriminazio-egoera hori zela-eta?"


15. grafikoa. Salaketa edo erreklamazioa ez egiteko arrazoiak (%)



Iturria: 39. G. "Zergatik ez zenuen kexa formalik edo salaketarik egin diskriminazio-egoera hori zela-eta?"

Salaketa edo erreklamazio formala egindako pertsonen dagokienez (15 pertsona), %20,1ek epaitegien edo fiskaltzaren aurrean egin zuen, 16. grafikoa ikus daitekeen moduan. %10ek maila handiagoko pertsona baten aurrean, eta, neurri berean, abokatu baten aurrean. Gutxiago egin zen salaketa poliziaren aurrean (%9,2). %29,4k salaketa edo erreklamazioa beste organismo edo erakunde baten aurrean egin zuen.

16. grafikoa. Salaketa edo erreklamazioa egiteko aukeratutako erakundea (%)




Iturria: 40. G. "Zein organismo edo erakundetara jakinarazi edo salatu duzu diskriminazio-egoera?"

Lehentasuna erakundeen artean salaketa edo erreklamazioa egiteko

Diskriminazio baten biktima izanez gero, salaketa zein organismo edo erakunderen aurrean jartzea nahiago izango luketen galdetzean (17. grafikoa), aipagarria da % 26,9k ez dakiela erantzun bat ematen, ziur aski, egoera hori planteatu ez duelako. % 20,1ek salaketa polizian jarriko luke, eta % 13,7k Berdintasunaren Arloko erakunde publiko bat aukeratuko luke. Gutxiagok GKE edo elkarteak (% 3,1) edo epaitegiak (% 3,9) aukeratuko lituzkete.

17. grafikoa. Erakunde lehenetsia baliozko salaketa edo erreklamazioa egiteko (%)



Iturria: 42a. G. "Diskriminazio-egoera bat pairatuko bazenu edo berriz biktima izango bazina, nori jakinaraziko zenioke? Nori lehenik?"

Ikasketa-mailak eragin nabarmena dauka erakunde baten edo beste baten alde egitean, 43. taulan ikus daitekeenez. Salaketa zein erakunderen aurrean egitea jakingo ez luketen pertsonen ehunekoa nabarmen handiagoa da ikasketarik gabeko pertsonen artean, % 40; goi-mailako ikasketak dituztenen artean, aldiz, % 15,8ra jaisten da. Ikasketa-mailak gora egin ahala, salaketa egiteko polizia aukeratzen dutenen kopurua jaitsi egiten da. Horrela, ikasketarik gabeko pertsonen % 25ek erakunde hori lehenesten du, goi-mailako ikasketak dituztenen artean kopuru hori % 14,5 den bitartean. Hala ere, kontrako joera ikusten da izaera ofiziala ez duten organismoekin, adibidez, GKE edo sindikatuekin, goi-mailako ikasketak dituztenek askoz gehiago aukeratzen dituztelako. Horrez gain, ikasketa-maila guztietan berdintasunaren arloko erakundeen presentzia nabarmentzen da, baina, oraingoan ere, ikasketa-maila altuenetan nabariagoa da.

43. taula. Erakunde lehenetsia balizko salaketa edo erreklamazioa egiteko ikasketa-mailaren arabera (%)

| | Ikasketarik gabe / Lehen mailako ikasketak | Oinarrizko bigarren mailakoak | LH Bigarren mailako ikasketak | Goi-mailakoak |
|--|--|-------------------------------|-------------------------------|---------------|
| Hierarkian gorago dagoen norbaiti | 1,7 | 10,0 | 8,3 | 11,0 |
| Poliziarri | 25,9 | 20,1 | 20,0 | 14,5 |
| Abokatu bati | 8,3 | 7,8 | 11,4 | 10,3 |
| Epaitegiei, fiskaltzari | 3,5 | 2,2 | 4,0 | 5,2 |
| Sindikatu bati | 3,3 | 6,3 | 7,3 | 11,4 |
| GKE edo elkarte bati | 2,3 | 3,2 | 2,7 | 4,4 |
| Berdintasunaren arloko erakunde publiko bati | 5,8 | 16,3 | 13,7 | 20,4 |
| Beste bat | 6,8 | 9,1 | 9,3 | 6,5 |
| Ed | 40,5 | 24,1 | 22,7 | 15,8 |
| Ee | 2,0 | 0,8 | 0,7 | 0,4 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |
| K | 329 | 177 | 367 | 324 |

Iturria: 42a. G. "Diskriminazio-egoera bat pairatuko bazenu edo berriz biktima izango bazina, nori jakinaraziko zenioke? Nori lehenik?"

Sexu/generoaren araberako lehenetsunaren analisiak alde nabarmenak erakusten ditu ere bai (44. taula). Zehazki, emakumeek diskriminazio-egoera bat gehiagotan (% 16,8) salatuko lukete berdintasunaren arloko erakunde publiko batean gizonak baino (% 10,3).

44. taula. Erakunde lehenetsia balizko salaketa edo erreklamazioa egiteko sexu/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|--|---------|----------|--------|
| Ez daki / Ez du erantzun | 26,9 | 24,1 | 29,9 |
| Poliziarri | 20,1 | 21,3 | 18,9 |
| Berdintasunaren arloko erakunde publiko bati | 13,7 | 16,8 | 10,3 |
| Abokatu bati | 9,9 | 8,3 | 11,7 |
| Beste bat | 7,8 | 8,3 | 7,3 |
| Hierarkian gorago dagoen norbaiti | 7,5 | 8,0 | 6,9 |
| Sindikatu bati | 7,1 | 6,5 | 7,8 |
| Epaitegiei, fiskaltzari | 3,9 | 3,9 | 3,9 |
| GKE edo elkarte bati | 3,1 | 2,9 | 3,4 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 42a. G. "Diskriminazio-egoera bat pairatuko bazenu edo berriz biktima izango bazina, nori jakinaraziko zenioke? Nori lehenik?"


Eskubideak eta erakundeak ezagutzea

Nahiz eta tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza oinarritzko eta funtsezko eskubidea izan, ezagutzea da onetsi eta, neurri batean, salaketa ahalbidetzen duena. Eskubide horren ezagutza-gradua, tratu berdintasun eta diskriminaziorik ezarekin lotutako erakundeei eta instituzioei buruzko ezagutza-graduarekin batera, funtsezkoa da fenomeno hori ulertzeko.

Diskriminaziorik ezari buruzko eskubidea ezagutzea

Oro har, biztanleriak ez du diskriminaziorik ezari buruzko eskubidea ezagutzen; zehazki, hamar pertsonatikazpik dio ez duela bere edukia ezagutzen. Hala ere, % 26k ezagutzen duela dio. Zentzu horretan, ez da ezagutza-mailari buruzko alde nabarmenik ikusten sexu/generoari dagokionez (18. grafikoa).

18. grafikoa. Diskriminaziorik ezari buruzko eskubidearen ezagutza sexu/generoaren arabera (%)



Iturria: 45. G. "Ezagutzen al dituzu zure eskubideak diskriminazioaren biktima izanez gero?"

Eskubideak ezagutzeari dagokionez, emaitzan eragina duten bi alderdi daude: ikasketa-maila eta soldata. Ikasketa-mailari dagokionez, ikasketa-maila handiagoa duten pertsonak ezagutza-maila handiagoa dute. Soldatari dagokionez, 45. taulan jasotako datuek erakusten dute soldata handitu ahala eskubideei buruzko ezjakintasuna pixkanaka jaisten dela. Horrela, soldata baxuagoak dituzten pertsonak % 14ko ezagutza agertzen duten bitartean, soldata altuagoak dituztenek % 35,9ko ezagutza erakusten dute. Prestaketa-maila eta soldata gehituz gero, ikus dezakegu diskriminaziorik eza eskubidea ezagutzea klase sozialaren arabera dela.

45. taula. Eskubideak ezagutzea diru-sarreraren arabera (%)

| | Baxua | Ertain-baxua | Ertaina | Ertain-altua |
|--------------------------|-------|--------------|---------|--------------|
| Bai | 14,0 | 24,1 | 27,6 | 35,9 |
| Ez | 81,3 | 69,0 | 69,4 | 61,1 |
| Egoeraren arabera | 4,2 | 1,0 | 1,4 | 3,0 |
| Ez daki / Ez du erantzun | 0,6 | 5,8 | 1,7 | 0,0 |
| Kop. | 76 | 359 | 698 | 51 |


Iturria: 45. G. "Ezagutzen al dituzu zure eskubideak diskriminazioaren biktima izanez gero?"

Erakundeak eta organismoak ezagutzea

Diskriminaziorik eza eskubideaezagutzeaz gain, garrantzitsua da eskubide hori kudeatzen duten erakunde eta organismoen buruzko ezagutza neurtzea. Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza ardura instituzionala da, ekintzen garapenaren bidez eta berdintasunaren alde lan egiten duten erakunde publikoen sorreraren bidez gauzatzen dena. Horrela, euskal biztanleriari hurrengo erakunde edo organismoak ezagutzen dituen galdetu zaio: Eraberean, Berdindu, Emakunde eta Migraziorako Euskal Itun Soziala³ (19. grafikoa).

Alde handiarekin, Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea) da gehien ezagutzen den erakundea, hamar pertsonatik zortzik ezagutzen dutelako. Biztanleriaren % 19,1ek Migraziorako Euskal Itun Sozialari buruz zerbait entzun du; % 13,4k Berdindu (sexu- eta genero-dibertsitatea) ezagutzen du, eta % 2,7k Eraberean Sarea; azken hori da gutxien ezagutzen dena.

19. grafikoa. Erakunde eta organismoak ezagutzea (%)



Iturria: 46. G. (A-D) "Ba al duzu honako hauen berri?"

³Erakunde edo organismo horien definizioa glosarioan aurki daiteke.

Datuek erakusten dutenez, ez dago alde adierazgarririk sexu/generoaren arabera diskriminaziorik ezarekin lotutako erakundeen eta organismoen ezagutzari dagokionez (46. taula).

46. taula. Erakunde eta organismoak ezagutzea sexu/generoaren arabera (%)


| | Guztira | Emakumea | Gizona |
|-----------|---------|----------|--------|
| Eraberean | 2,7 | 2,8 | 2,6 |
| Berdindu | 13,5 | 13,7 | 13,4 |
| Emakunde | 83,2 | 84,0 | 82,3 |
| MEIS | 19,1 | 18,0 | 20,4 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 46. G. (A-D) "Ba al duzu honako hauen berri?"

Erakundeen balorazioa

Eskubideak eta erakundeak ezagutzetik harago, euskal biztanleriari euskal erakundeek askotariko esparruetan berdintasunaren alde egindako esfortzuei buruz galdetu zaio. Horrela, ehuneko handienak ikusita, jendearen arabera hurrengo esparruetan erakundeek esfortzu nahikoa egiten dute: erlijioa ("Pertsonak beren erlijioa eduki ahal izatea", % 68,3), desgaitasuna duten pertsonen integrazioa (% 67,5), LGB pertsonen diskriminaziorik eza (% 63,8) eta pertsona immigranteen integrazioa (% 63,7). Kontrako muturrean, erakundeek esfortzu nahikorik ez izateagatik nabarmendutako esparruak daude. Zehazki, biztanleriaren % 43k uste du emakumezkoen kontrako indarkeriaren aurka ez dela esfortzu nahikorik egiten; % 32,9k gauza bera pentsatzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren kasuan, eta % 32k trans pertsonen kasuan.

20. grafikoa. Erakundeek berdintasunagatik egindako esfortzuak esparruen arabera (%)



Iturria: 47. G. (1-7) "Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauek lortzeko?"

Emaitzak sexu/genero aldagaiaren arabera aztertuz gero, alde nabarmenak daude emakumeen eta gizonen ikuspuntuaren artean, bereziki, generoarekin lotutakoari dagokionez (47. taula). Emakume gutxiagok uste dute erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde esfortzu nahikoa egiten dutenik, zehazki, emakumeen % 52,5k, gizonen % 62,3ren aurrean. Gauza bera gertatzen da emakumeen kontrako indarkeriaren kasuan; emakumeen % 44,3k beharrezko esfortzuak egiten direla uste du, gizonen % 55,6k hori pentsatzen duen bitartean.

47. taula. Erakundeek berdintasunaren alde egindako esfortzuak nahikoak direla pentsatzen duten pertsonak sexu/generoaren arabera (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---------|-----------|---------|
| Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna | 57,2 | 52,5 | >62,3 |
| Desgaitasuna duten pertsonen integrazioa | 67,5 | 66,4 | 68,6 |
| Immigranteen integrazioa | 63,7 | 62,8 | 64,7 |
| LGB pertsonen diskriminaziorik eza | 63,8 | 62,5 | 65,2 |
| Trans pertsonen diskriminaziorik eza | 50,4 | 48,5 | 52,5 |
| Pertsonak beren erlijioa izateko | 68,3 | 66,2 | 70,5 |
| Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko | 49,7 | 44,3 | >55,6 |
| K | 1.200 | 623 | 577 |

Iturria: 47. G. (1-7) "Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauek lortzeko?"



Ondorioak

Euskadin diskriminazioaren fenomenoa eta euskal biztanleriak dibertsitatearekiko eta bere adierazpenekiko duen jarrera aztertu eta gero, ikerketa honen aurkikuntza nabarmenenak laburbiltzen dira.

Hautemandako diskriminazioa

Hasteko, euskal biztanleriari dibertsitate eta diskriminazioaren aurrean dituen jarrera eta pertzepzioei buruz galdetu zaio. Horrela, datuen arabera orokorrean euskal gizarteak jarrera irekia dauka aniztasun kultural eta erlijiosoarekiko. Hau da, aukeratu ahal izanez gero, euskal biztanleriaren % 65i jatorri, kultura eta erlijio ezberdinetako pertsonekin bizitzea gustatuko litzaioke. Zentzu horretan, emakumeek, pertsona gazteek eta hezkuntza-maila handiagoa dutenek gizarte anitz bat gehiago onartzen dute.

Bestalde, emaitzek erakusten dute Euskadin diskriminazioa hauteman eta aitortzen dela. Oro har, aztertutako ia esparru guztietan, tratu- eta aukeraberdintasuna baino gehiago, desberdintasun handiagoa hautematen da. Diskriminazio gehien (% 82,2) alokairuko etxebizitzarako sarbidean hautematen da. Esparru zehatz horretan, baliabide gutxiko pertsonak, langabetuak eta atzerritarrak dira kolektibo kaltetuenak. Lan-kontratu bat —oparua eta egonkorra— alokairu-kontratu bat lortzeko sine qua non baldintza denez, eta gutxiengo etnikoekiko aurreiritziak eta estereotipoak daudenez, aipatutako kolektiboen presentzia hein handi batean azaltzen da.

Lan-arloari dagokionez, lana lortzeko (% 78,1) zein erantzukizuneko postuak lortzeko (% 77,6), euskal biztanleriak tratu-desberdintasuna detektatzen du, bereziki, atzeritarren, ijitoen eta emakumeen kasuan. Azken kasu horretan,

pentsa daiteke biztanleriak horrela “kristalezko sabaia”, edo emakume eta gizonen arteko desberdintasuna, onartzen duela, kasu honetan erantzukizuneko postuak lortzeko aukeran adierazten dena.

Gainera, %60k justiziaren aurrean pertsonen tratu-desberdintasuna hautematen du, eta, azkenik, biztanleriaren % 30ek uste du zerbitzu publikoak jasotzean desberdintasunak daudela.

Diskriminazioa eta tratu-desberdintasuna gehien pairatutako pertsonen ezaugarriei dagokienez, bi euskal biztanletik batek uste du jatorri kultural eta/edo etniko ezberdina izatea diskriminazioa jasotzeko arrazoi nagusia dela. Horrez gain, gaixotasun mental bat izatea edo baliabide ekonomiko gutxi edukitzea diskriminazioa dakartzaten ezaugarritzat jotzen dira. Neurri txikiagoan, praktika diskriminatzaileekin lotzen dira langabezia egotea, erlijio ezberdina izatea edo heterosexualitatea ez den orientazio sexuala izatea. Azkenik, bakarrik euskal biztanleriaren % 27k uste du sexu/generoa diskriminazioa ekar dezakeen ezaugarri bat dela. Emakumeek maila handiagoan hautematen dute sexu/generoarekin, dibertsitate funtzionalarekin eta itxura fisikoarekin lotutako diskriminazioa edo tratu-desberdintasuna.

Aitortutako diskriminazioa

Bestalde, aitortutako eta norberaren azalean bizi izandako diskriminazioari dagokionez, EAEko biztanleen herenak (% 24,4k) esan du zenbaitetan bizi izan dituela diskriminaziozko egoerak bizitzaren joanean, eta haietatik % 61,4 emakumezkoak dira. Denbora-muga azken hamabi hilabeteetara murriztuta, biztanleen % 9,4k adierazi du diskriminatuta sentitu dela.

Azken galdera horretan, hauek dira gehien aipatu dituzten diskriminaziozko bizipen pertsonalak: sexuarekin/generoarekin zerikusia dutenak, adina eta jatorria edo nazionalitatea. Zehazki, biztanleen % 10,5 sentitu da diskriminatuta sexua/generoa dela eta; analisiaren datuek adierazten dute emakumeen % 18k aitortu duela diskriminazio-mota hori. Ehuneko hori batezbestekoa baino handiagoa bada ere, espero zena bano txikiagoa da oraindik ere berdintasunik eza nabaria den gizartea baten esparruan; izan ere, patriarkatua errepikatzen duten mekanismoek gizartearen esparru eta egitura guztietan dira.

EAEko biztanleak bizitzaren joanean inoiz diskriminatuta sentitu diren beste arrazoietakoa bat adina da; hain zuzen ere, emakumeek eta 45-65 urte bitartean dituzten pertsonak adierazi dute gehien diskriminatu egin dituztela.

Etnia-jatorriagatiko diskriminazioari dagokionez, kaltetuenak langabezian daudenak eta jatorri atzerritarrekoak dira, batez ere Errumaniako, Afrikako, Saharaz hegoaldeko eta Magrebeko pertsonak.

Horrenbestez, agerian dago diskriminaziozko bizipenak askotariko arrazoei eragin ditzaketeela, eta arrazoi horiek gehiago eragiten dietela sozialki edo ekonomikoki egoera ahulean dauden kolektiboak.

Zeharkako diskriminaziozko bizipenei dagokienez —ingurukoren batek jasan duela entzun edo ikusitakoak—, batik bat lotuta daude etnia- edo arraza-jatorriarekin, gerosexuarekin/generoarekin, eta hirugarrenik nazionalitatearekin.

Aitortutako diskriminazioa, zuzenekoa zein zeharkakoa izan, nagusiki esparru edo egoeran hauetan gertatutakoak dira: lana, kalea eta hezkuntza. Diskriminazioetako batzuk batez ere lan-esparruan gertatzen dira, hala nola zerikusia dutenak sexuarekin/generoarekin, adinarekin eta dibertsitate funtzionalarekin; eta beste batzuk, berriz, kalean, lotuta daudenak jatorriarekin, erlijioarekin eta LGTB kolektibokoa izatearekin. Dibertsitate funtzionalagatiko tratu desberdina, halaber, hezkuntzaren esparruan gertatzen da.

Diskriminazioaren aurreko jarrerak

EAEko biztanleek diskriminazio-egoerekiko dituzten jarrerei dagokienez, eta bizikidetzaren termometroa den aldetik, zenbait kolektibo nabarmendu dira. Oro har aniztasunaren alde agertu badira ere, EAEko biztanleek errezelo gehiago dituzte honako hauekin bizitzeko edo hartu—emanak edukitzeko: ijitoak, jatorriko atzerritarreko pertsonak eta musulmanak.

Auzoan aniztasuna zenbaiteraino onartuko luketen galdetuta, EAEko biztanleek adierazi dute batez ere deserosoa egingo litzaikeela auzoan ijitoak edukitzea, eta haiekin hartu-emanak edukitzeko itxienak emakumezkoak eta adinez nagusienak agertu dira. Gero, auzoan musulmanak edukitzea egingo litzaike deseroso EAEko biztanleei. Pertzepzio hori gehiago dute, besteen aldean, adinez nagusi diren pertsonen eta hezkuntza-maila txikia dutenen.

Pertsonen arteko interakzioaren beste arloetako bat lagun edo adiskideena da, eta horren harira, EAEko biztanleek esan dute hartu-eman gehiago dituztela baliabide ekonomiko gutxi dituztenekin, eta haien ondoren, jatorri atzerritarreko pertsonekin eta desgaitasunen bat dutenekin. Beste muturrean ijitoak daude, kolektibo horrekin baitute EAEko biztanleek hartu-eman gutxien, eta antzekoa gertatzen da beste erlijio bateko pertsonekin.

Eta azkenik, orokorrean, nor bere burua toleranteagoa ikusten du euskal gizartea baino, galdetutako ia alderdi guztietan. Gizarteak, beste behin ere, tolerantzia txikiena ijitoekiko erakutsi du, eta gero, erlijiotzat islama duten pertsonekiko, bai eta matxismoarekiko ere. Eta tolerantzia handiena, berriz, baliabide gutxi duten pertsonekiko eta LGTBI kolektiboarekiko. Bestalde, EAeko biztanleria ulerbera agertu da gizarte-desberdintasunak eragiten dituen arazoekiko, eta erabat gaitzesten ditu diskriminaziozko jarrerak, baina horrek neurri batean zerikusia izan dezake desiragarritasun sozialaren fenomenoarekin.

Salaketak eta egintzak, diskriminazioa dela eta

Bai aurretik egindako beste ikerlan batzuetan eta bai ikerlan honetan ere, agerian geratu da diskriminazioaren kasuan gutxiegi salatzen dela; hau da, arrazoiak arrazoi, gertaerak ez dira salatzen, eta salaketa- edo erreklamazio-kopurua askoz txikiagoa da benetan gertatzen den egoera-kopurua baino. Hain zuzen ere, diskriminazioa jasan dutela adierazi duten pertsona guztien % 5ek soilik erabakitzen du egoera salatzea. Salaketa edo erreklamazio formala zergatik ez duten jarri galdetuta, herritarrek batez ere mesfidantza adierazi dute, hau da, uste dute ez duela ezertarako balio, eta diskriminazioa normala eta ohikoa dela ere aipatu dute arrazoi gisa. Diskriminazio-egoera zer organismo edo erakundetan jakinarazi edo salatu duten galdetuta, berriz, nabarmentzekoa da batez ere “Beste batzuk” kategoria eta “Epaitegiei, fiskaltzari” kategoria hautatu izana, bai eta “Poliziarri” zein “Abokatu bati” hain jende gutxi hautatu izana ere. Nolanahi ere, diskriminazio-egoera bat pairatuz gero salaketa edo erreklamazioa zer instituzio edo organismotan jarriko luketen galdetuta, EAeko biztanleek adierazi dute lehenik poliziarri jakinaraziko lieketeela.

Aldi berean, pertsonen ehuneko handi batek ez daki zer instituziotara edo erakundetara joko lukeen diskriminazio-egoeraren bat jasanez gero, eta horrek zerikusia izan dezake tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezarako eskubidearen inguruko ezjakintazunarekin, oro har; izan ere, datuek zera diote: biztanleen % 69k esan du ez dakiela zer eskubide dituen diskriminazioaren biktima izanez gero. Hori are eta nabarmenagoa da ikasketa-maila txikia duten eta egoera sozioekonomiko prekariora duten pertsonen kasuan.

Diskriminaziorik ezarekin zerikusia duen euskal erakunde eta instituzio ezagunena Emakunde da, eta gero, Immigrazioaren aldeko itunglobala, Berdindu eta Eraberean; azken hori da gutxien ezagutzen dutena EAeko biztanleek.

Eta azkenik, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko erakundeek egiten duten ahaleginaren balorazioari dagokionez, herritarrek uste dutesinesmen erlijioso guztietako pertsonek beren fedea agertu ahal izateko ari direla batez ere ahalegina egiten euskal erakundeak. Gero, desgaitasuna duten pertsonak

gizartean erabat integratzeko eta LGB kolektiboko pertsonak diskriminatuak ez izateko. Eta beste muturrean, berriz, honako hauek aipatu dituzte: emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko, emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzeko eta transexualak edo transgeneroak diskriminatuak ez izateko. Horren harira, emakumezkoak kritikoagoak dira gizonezkoak baino azken bi aipamenetan.



Glosarioa

Adinkeria: Adina dela-eta pertsona nahiz talde batek tratu bereiztua jasaten duen egoera edo gertakaria. Askotan, desberdintasun mota horien oinarrian kolektiboa desitxuratzen duten estereotipoak egoten dira. Egoera hori bereziki larria da lanaren testuinguruan, baina beste esparru eta arlo batzuetan ere gerta daiteke (Europako Batzordea, 2005).

Amabakartasuna: Amak eta seme edo alaba batek edo gehiagok osatzen duten familia gunea, umeak ama bakarraren kargu eta haren menpeko ekonomikoak direlarik.

Anti-ijitokeria: Arrazakeriaren forma zehatza da, tradizio historiko luze batetik elikatua, azaltzen dena beldurrezko hitzetan, esplotazioan, eta kasurik okerreanean, ijitoekiko bortizkerian (Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea, 2011).

Aporofobia: Pertsona behartsu eta babes gabekoekiko beldurra eta errefusa, irtenbide, bitarteko edo baliabide materialik gabe daudelarik (Martínez Navarro, 2002).

Arrazakeria: Arraza-etnia, kolorea edo leinua edo nazio-jatorria oinarrian dituzten bereizkeria, bazterkeria, murrizketa edo lehentasun guztiak. (Nazio Batuen Erakundea, 1965).

Beirazko sabaia: “Hesi ikusgaitz eta sotila, emakumeek beren lanbide-garapeneko une zehatz batean aurkitzen dutena, eta lanpostu garrantzitsuetara edota erantzukizun handiagokoetara iristea galarazten diena, gizonek menperatzen dituzten erakundeetan izaten den egitura-bilbadura konplexu baten ondorioz” (Emakunde, 2015b).

Berariazko bereizkeria: Pertsona bat tratatzea beste bat baino hobeto egoera berdinean edo antzekoan, arrazoa delarik arraza-etnia, erlijioa, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa (Eraberean, 2018).

Berdindu: Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua, informazioa eskaintzeko lesbiana, gay, trans, bisexual eta sexuarteakoak diren pertsonen. Gainera, lankidetzan aritzen da hainbat gizarte-eragilerekin, LGBTIfobia ezabatzeko eta LGBTI pertsonen eskubide eta askatasun osoak sustatzeko.

Bereizkeria erlijiosoa: Pertsona edo kolektibo bat era okerragoan tratatzea eta funtsezko zerbitzuak jasotzeko duen aukera mugatzea (irakaskuntza publikoa, osasun-zerbitzuak, etab.) haien erlijio-sinesmenengatik, mutur-muturreko kasuetan kartzelara eramatera edo hiltzera iritsiz (Nazio Batuen Erakundea, 2009).

Bereizkeria estrukturala: Gizarte egituraren beraren “dispositibo orokorretatik”, haien jardunbideetatik eta berez dituzten desberdintasunetatik isurtzen diren diskriminazio-egoerak dira, eta zeharka identifikatu daitekeena bigarren iturriek emandako datuen bidez, eta batez ere, estatistiken bidez.

Bereizkeria instituzionala: Egoera hau sortzen da tratu-berdintasuna betetzen ez denean instituzioen esparruan, eta administrazioaren arau eta jardunbideetatik planteatzen denean instituzio-esparru diskriminatzaile bat.

Bereizkeria sumatua: Tratu bidegabea sumatzea da, egoera edo testuinguru desberdinetan (lana, etxebizitza, eskubideak eta zerbitzuak izateko aukera), tartean daudelarik sexua, arraza-etnia, jatorria, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa.

Bereizkeria: Bereiztea, baztertzea edo mugatzea da, arrazoiak direla hazpegiak, arraza-etnia, genero-orientazioa edo -identitatea, edo erlijioa (besteak beste) horren ondorioz murrizten direlarik pertsona horien funtsezko eskubideak eta askatasunak.

Bifobia: “Pertsona bisexualen aurkako diskriminazio-, bazterketa-, arbuio- edo indarkeria-ekintzak” (Ikusgune, 2020).

Bisexuala: Historikoki, “bi sexutako pertsonen emozionalki edo sexualki erakartzen duten pertsona” dela ulertu da (Gipuzkoako diagnostikoa, 2018). Gaur egun, aldiz, definizioa berrikusi eta berreraiki egin da, eta sexu edo genero bat baino gehiagoko pertsonetikiko erakarpem emozional edo sexuala sentitzen duten pertsonak direla ulertzen da.

Emakunde: Emakunde-Emakumearen Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomo bat da, berdintasun-politikak sustatzen, aholkua ematen, koordinatzen eta ebaluatzen dituena, eta gizartearen sentiberatasuna lantzen duena, emakume eta gizonen arteko egiatzko berdintasun eraginkorra lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoan” (Emakunde, 2015)

